


hh
hik hasi

**Txemi Santamariari elkarrizketa
adimen espiritualaz**
Mexikoko Kalnemaxtiloyan eskola
Ingurune seguru eta babeslea
Bizitzako lehen urteen garrantziaz
Aupa Quartet-en Soinu laborategia
Mertxe Rodriguez Marimotots



EUSKARALDIA



MARIMATRAKAK

ANA JAKA eta JOSU MITXELENAk sortutako bilduma berria.
Bostakoz MARIMATRAKAK, erre ibiltz!



elkar

www.elkar.com

AURKIBIDEA

GAIA / 10

EUSKARALDIA

Egun gutxi falta dira Euskaraldia hasteko, Euskal Herriko milaka herritar elkarrekin ariketa kolektibo batean murgiltzeko. Denak erronka berarekin: euren hizkuntza ohiturak aldatzea, euskaraz jende gehiagorekin hitz egitea. Esperimentu honen oinarri teorikoak ezagutzeko aukera izan du Hik Hasik Pello Jauregi Euskaraldiko sortzaileetako baten eskutik.

ELKARRIZKETA / 20

TXEMI SANTAMARIA

Adimen espiritualari buruzko tesia bukatu berri du eta defentsa egitear da Txemi Santamaria. Bilboko Otxarkoaga heziketa zentroan egin du ikerketa eta han esperimentatutakoak bildu ditu tesian. Meditazioa, erlaxazioa, arreta, isiltasuna eta beste hainbat tresna jarri dituzte praktikan irakasleek bertan, eta erlijioan sartu gabe, adimen espiritualak kontzientzia, zentzua, isiltasuna, etab. lantzeko aukera ematen duela dio.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ane Aranburu, Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoz.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Errion-

do, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.
Administrazioa: Uxue Ugartemendia.
Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.
Inprimategia: ANTZA S.A.L
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2018-09-24).
Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiek.

5 EDITORIALA

Ariketa bat proposatzen digu Euskaraldiak

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Euskaraldia

20 ELKARRIZKETA TXEMI SANTAMARIA

“Kontzientzia, zentzua eta transzendentzia da niretzat adimen espiritual eta horiek lantzeko bitartekoa, barne isiltasuna”

28 ESPERIENTZIAK

Mexikoko Kalnemaxtiloyan eskola

32 EKARPENAK

Psikomotrizitatea haurren garapen integralerako ingurune seguru eta babesle

34 GALDEIDAZU XABIER TAPIA

Zenbateko garrantzia dute bizitzako lehen urteek?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Aupa Quartet-en eskutik Soinu laborategia

42 ATZEKO ATETIK

Mertxe Rodriguez *Marimotots*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Maripositas



Ariketa bat proposatzen digu Euskaraldiak: praktikoa, egitekoa.

editoriala

HAMAIKA IKUSTEKO JAIOK OMEN GARA. BADA, ORAINGOAN IKUSTEKO EZ, EGITEKO ESKATZEN ZAIGU: GEURE HIZKUNTZA OHITURAK ALDATZEKO. MODU KOLEKTIBOAN, ELKARREKIN.

Euskaraldiak aitzakia eman digu, beste behin ere, euskara eta haren erabilera ahotan hartzeko. Makina bat aldiz hitz egin dugu euskal herritarren euskara gaitasunaz, euskara mailaz (B1, B2...), EGaz, irakaskuntzako hizkuntza ereduen sistemaz, ikastetxeetako normalkuntza planez, euskararen ofialtasunaz eta ofizialtasun ezaz, euskal hiztunen eskubideez eta haien bermeez, erabilera datuez eta horrek sortzen duen kezka, euskarazko kultur produktuen kontsumoaz, euskarazko komunikabideen errealitateaz... Umeez, gazteez eta helduez, euskaldun zaharrez eta berriez, bertakoez eta etorkinez... Elebitasunaz eta eleaniztasunaz... Denetaz hitz egin da, eta asko. Hizkuntza gutxitua izatearen ajeak eta erronkak beti soinean.

Makina bat ekitaldi, jaialdi, egun-pasa, topaketa eta abar egin dira euskararen harira. Eta, orain, Euskaraldia. Euskal Herriko 400 herritik gora izango dira Euskaraldian parte hartuko dutenak. Ahobiziak eta Belarriprestak ditugu ahotan, azaroaren 23tik abenduaren 3ra hizkuntza ohiturak aldatzen saiatuko diren herritarrak.

Herritarroi proposatzen zaigun ariketa bat izango da. Ez da teoria berri bat, ez da metodologia berri bat. Ariketa sozial bat da. Helduentzako eta hizkuntza ohituren aldatetan oinarritua. Osagai berriak ditu, beraz. Eta arretaz begiratu eta ondo ulertu beharreko osagaiak, baldin eta ariketa ondo aterako bada. Helduentzat izateak



badu bere garrantzia eta berezitasuna. Nolabait esatearren, oraingoan ez da ikastetxeen gain jarri lanik mardulena. Askotan egokitu zaio irakaskuntza arloari gai honen jorraketa, beharrezkoa zelako eta tresna baliagarritzat hartzen zelako. Baina Euskaraldiak kalera begira jarri gaitu eta hor denak daude: eskolak, lantegiak, dendak, parkeak, aisialdi eremuak eta abar luze bat. Ikasleak, umeak eta gazteak bakean utzi, eta helduoi dagokigu zezenari adarretatik heltzea. Haurraren garapenean imitazioa baldin bada tresnarik erabiliena, egin dezagun, eta imitatuko gaituzte gero.

Hizkuntza ohiturak aldatu, hori da Euskaraldiak jarri digun eginkizuna. Ez du gaitasunean jartzen arreta, erabilera baizik. Euskaraz hitz egiteko ohituran eragitea du xede. Horrek norberaren portaera edo jokaera aldatetako egitea esan nahi du. Eta taldean, modu kolektiboan, babesean egiteko aukera ematen du. Ahobiziek Belarriprestak izango dituzte gonbidapena eginenez; Belarriprestak Ahobiziak bidelagun. Denak maila berean eta elkarren babesean. Enpresa munduan landu eta praktikan jarri dute aurretik. Han ondo atera bada, kalean zergatik ez?

Ariketa den heinean, praktika eskatzen du, ez begira egotea. Hamaika ikusteko jaiok omen gara. Bada, oraingoan ikusteko ez, egiteko eskatzen zaigu. Ikusi, gero ikusiko dugu zer gertatzen den eta zer ematen duen. Baina aurrena, egin egin behar dugu.

“Arrotza zitzaien sistema horretatik kanpo sortu ziren ikastolak, euskaldunontzat gure legalitatea eta publikotasuna izateko borondatearekin. Gure sistema nazionala. Hortik jo beharko genuke gure eskola erdua sortzeko...”

Ane Ablanedo



ERRENTA BAXUKO FAMILIEK DOAN IZANGO DITUZTE 'HAURRESKOLAK' SAREKO ZENTROAK

Haurreskolak partzuergoak aldatu egin du tarifa eredua, eta doako zerbitzua emango die diru sarrera baxuenak dituzten familiei. Muga 18.000 eurotan jarri du: hori baino apalagoak bada dira familiaren diru sarrerak, ez dute umeen matrikula ordaindu beharko. Kalkulatu dute 500 bat familiak jasoko dutela horren onura. Beste erabaki bat ere hartu du partzuergoak: sarean ume bat baino gehiago duten sendiek matrikula bat pagatu beharko dute, ez ume bakoitzeko bat. Neurri horren onuradunak nabarmen gutxiago izango dira: 60 bat. Denera, beraz, partzuergoko familien % 12 inguruk jasoko dituzte onura horiek. 4.500 ume inguru daude gaur egun Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako haur eskola publikoen sare horretan. Horiei guztiei eragingo dien beste erabaki bat, bai, hartu dute: matrikula egitean ez dute 91 euroko diru aurrerapenik egin beharko.



EZTABAIDA PIZTU DA NAFARROAN, HEZKIDETZA PROGRAMAREN HARIRA

Nafarroako ikasgeletan "kultura berdinzalea" eta indarkeria sexisten aurkako kontzientzia ezartzeko xedez, Skolae proiektua martxan jarri zuen Nafarroako Gobernuak, 2017-2018 ikasturtean. Hamasei ikastetxetan ezarri zuten esperientzia pilotua, eta balorazio positiboak ikusita, ehun bat eskolalara zabaldu dute aurten.

Eskuin politiko, sindikal eta mediatikoak, ordea, kritika gogorra egin dio lauko gobernuari, talde ultrakatolikoek Interneten hauspotutako polemika bati segida emanez. Concapa Ikasleen Guraso eta Familiaburuen Espainiako Konfederazio Katolikoak, esaterako, auzitara jotzearekin mehatxu egin dio Hezkuntza Departamentuari, Skolaek "genero ideologia" hedatzen duela argudiatuta.

IKASTOLEK SEGREGAZIOAREKIN AMAITZEKO NEURRIAK PROPOSATU DITUZTE

Jatorri atzerritarra duten ikasleak ikastetxeetan modu orekatuan banatzeko neurri zehatzak proposatu ditu Ikastolen Elkarteak. Atzerriko jatorria duten ikasleen eskolatzea "herri apustua" dela uste du Ikastolen Elkarteak. Nabarmendu dute egoera aztertu eta eragileen artean "irtenbide integralak" adostu behar direla. Horregatik, elkarteko artezkaritza kontseiluko eta zuzendaritzako kideek babestuta, euren proposamena aurkeztu dute. Orain gainerako eragileei azalduko diete euren proposamena. "Batuetan badi-rudi mutur bateko eta besteko jarrerak ordezkatzan ditugula, baina segregazioaren kontu honetan dirudien baino gertuago daude eragileon jarrerak", nabarmendu du Koldo Tellitu Ikastolen Elkarteko lehendakariak.

'EUSKAL ESKOLA PUBLIKO KOMUNITARIOA', LAB-EN PROPOSAMENA

Gogoeta zabala egin du LABek azken hamarkadetan hezkuntzan egindako ibilbideaz, eta gaur egungo egoeraz ere bai: lorpenak eta hutsuneak seinalatu dituzte. Indarguneen artean aipatu dituzte hezkuntzarekiko interes handia dagoela gizartean eta euskarazko irakaskuntza zabaldu egin dela; hutsuneei dagokienez, ohartarazi dute euskarazko hezkuntzak ez duela bermatzen gaitasuna eskuratzea, eta parte hartze txikiagoa duela komunitateak. Eskola segregazioa saihesteko neurri gehiago eskatu ditu LABek. Gogoeta txosten bat egin du hezkuntzari buruz, eta lehentasuntzat jo du segregazioaren aurkako bideak jartzea. Besteak beste, zera eskatu die erakundeei: maila sozioekonomikoari buruzko indize bat sor dezatela.

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

EUSKO JAURLARITZA OSATZEN DUTEN ALDERDIEK PP-REKIN HASI DUTE HEZKUNTZA LEGEA ADOSTEKO BIDEA



Zatituta dago Eusko Legebiltzarra Hezkuntza Legea egiten hasterako. Eusko Jaurlaritzak oinarritzko gogoeta dokumentu bat aurkeztu du, legean lantzeko gai nagusiak biltzen dituena. Txosten horri buruzko eztabaida izan zuten urriaren 22an parlamentuan, eta agerian geratu ziren desadostasunak. Alde batean, EAJ eta PSE-EE, Jaurlaritzako bazkideak: orain arteko bidea goraiatu zuten, eta dokumentuari ekarpen batzuk egin. Bestetik, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos: ez zuten ontzat jo azken hilabeteetako bidea, Jaurlaritzak eragileekin izandako harremana, prozedura “telegidatua” izan delakoan. Eta erdian, PP: ez zuen aurka egin, “posible zen txosten bakarra” delakoan. Horri heldu diote gobernuko bazkideek, eta PPrekin adostu dituzte puntu orokor batzuk. Parlamentuko eztabaida pasatuta, Jaurlaritzara itzuli da gaia: lege proiektu bat taxutu beharko du.

Hezkuntza Legea egiteko asmoa gobernu programan du Jaurlaritzak. Izatez, hauteskunde programan ia alderdi guztiek aipatu zuten Hezkuntzako Lege berria egitea, edo legea aldatzea behar duten proposamenak egin zituzten. Heziberri proiektua aurreko legealdian jarri zuten martxan. Hiru pauso zituen. Bat: marko pedagogikoa adostea. Bi: curriculum dekretuak egokitzea. Eta hirurik: legea egiteko prozesua hastea. Hirugarren urratsean daude orain, beraz.

Legeari begira, gogoeta dokumentu bat egin du Jaurlaritzak: 40 bat adituk landu dute. Ekarpenean egiteko tarte bat utzi zuten, eta Euskadiko Eskola Kontseiluak babestu egin zuen. Iritziak entzun ostean, Jaurlaritzak moldaketa batzuk egin ditu txostenean, eta gobernu kontseiluan onartu zuen. Agiri hori aztertu zuten urriaren 22an. Parlamentuko eztabaida igarota eta ebazpenak onartuta, berriro gobernuaren esku geratu da gaia. Lege proiektu bat egin behar du. EH Bilduk eta Elkarrekin Podemos ohartarazi dute hasiera ez dela egokia, jada zatituta dagoela parlamentua. Nabarmendu dute hezkuntzako eragile asko agertu direla aurka, tartean EHIGE guraso elkarte eta gehiengo sindikala.

ESKOLA SEGREGAZIOAREN GAIARI HELTZEA ATZERATU EGIN DUTE EUSKO LEGEBILTZARREAN

Eusko Legebiltzarreko talde guztiak bat datoz: hezkuntza sistema kohesionatzera jo behar da, eta eskola segregazioa saihestu behar da. Ordea, hori erdiesteko neurriak epe jakinik gabe atzeratzea erabaki dute. EH Bilduk eta Elkarrekin Podemos Zubiak Eraikiz plataformaren herri ekinbidea eztabaidatzearen alde bozkatu zuten urriaren 4ko osoko bilkuran. EAJk, PSE-EEK eta PPK, berriz, aurka egin zuten. Ekinaldian proposatutako ideietatik abiatuta araudi bat egin beharrean, bidean dagoen EAeko Hezkuntza Legean gaia jorratzearen alde egin zuten. Begi gehienak PSE-EEren aulkietan egon ziren jarrita. Alderdi sozialistak babesa eman zion herri ekinbide legegileari lehen unetik. Ordea, irail erdialdean, Eusko Jaurlaritzak ekinbidea tramitatzearen kontra azaldu zen, eta, horrekin batera, PSE-EEK iritzia aldatu zuen.

Zubiak Eraikiz-eko kide Xabin Zubirik defendatu zuen herri ekinbidea osoko bilkuran. Legebiltzarkideen aurrean esan zuen egun inor gutxi ukatzen duela kohesio falta. Horri aurre egiteko proposamenen inguruan bi bide daudela gaineratu zuen. Batetik neurri “aringarriak” daude: “Txiroarentzako diru apur bat, irakasleren bat gehiago...”. Bestetik, “egoera okerragoan dauden zentroetan eragiteaz gain, egoera pribilegiatuan daudenengan ere eragin behar litzateke”.



YOGA ETA KONTZENTRAZIO TEKNIKEN GAINEN IKASTAROA EGINGO DA AZAROAN, BIZILORE ESKOLAN

Azkoitiko Bizilore Eskola Aktiboak yoga eta kontzentrazio teknikei buruzko ikastaroa antolatu du azaroaren 10 eta 17rako, Marina Pintos Yogako irakasleak emanda. Orotara 12 orduko iraupena izango du ikastaroak: 10:00-14:00 eta 16:00-18:00 artean larunbat bakoitzean. Yogak izaera esperimentalak duenez, tailerra hainbat teknika erabilgarriren esperientzian oinarrituz egingo da. Hezkuntzarekin eta hazierarekin zerikusia duen edozein profesional nahiz familiakideri dago zuzendua.



600 hezitzaile inguruk hartu dute parte 'Mugimendua eta hizkuntza' jardunaldian

Hik Hasik antolatuta, urriaren 26an Bilbon eta 27an Donostian jardunaldiak egin ziren "Mugimendua eta hizkuntza" gaia hizpide hartuta. Jardunaldietan 600 hezitzaile inguruk hartu zuten parte. Hizlari lanetan aritu ziren, argazkian ageri diren bost adituak: Cira Rodriguez, Jon Arana, Mar Corominas, Xabier Tapia eta Joxe Ramon Mauduit.

Oso informazio eta eduki interesgarriak jarri zituzten mahai gainean, eta ekarpen berri eta aberasgarriak entzun ahal izan ziren. Hurrengo *Hazi Hezi* aldizkarian jasoko da guztiaren berri.



ABIAN DA CAF-ELHUYAR SARIKETA

25. urtez, abiatu da Caf-Elhuyar sariketa, zientziaren eta teknologiaren mundua gizarte osoarekin lotzeko asmoz. Hain zuzen, bi eremu horiek elkartzen dituen garraibide gisa ere irudika daiteke sariketa, eta hortik dator aurtengo gonbidapena: *Igo trenera!* Hauxe baita CAF-Elhuyar sariketaren xedea: zientzia eta teknologiaren arloko gaien eta ikerketen euskarazko dibulgazioa, kazetaritza, eta gizarteratzea bultzatzea, saritzea eta aitortzea.

Kategoria hauek ditu sariketarak:

- Dibulgazio-artikulu originalak. Bi azpikategoriatan banatuta dago: dibulgazio-artikulu orokorrak eta egilearen doktore-tesian oinarritutako dibulgazio-artikuluak. Azpikategoria bakoitzaren irabazleak 2.000 euroko saria eta Imanol Andonegiren eskultura bat eskuratuko du.
- Zientzia-kazetaritzaren arloko lanak. 2.000 euroarekin eta eskulturarekin saritzen da.
- Zientzia Gizartean sorkuntza-beka. Zientziaren/teknologiaren eta gizartearen arteko elkarrekintza lantzen duen proiektuak onartzen dira kategorian honetan. Aukeraturako proiektuaren egileak hura gauzatzeko 5.000 euroko diru-laguntza jasotzen du, baita eskultura ere.

Horrez gain, aurten ere NEIKER sari berezia emango zaio lehen sektoreari lotutako artikulu onenari. *cafelhuyar-sariak.elhuyar.eus* helbidean dago informazio guztia, eta 2019ko otsailaren 14ra bitartean aurkez daitezke lanak.

HIZPIDE IZANGO DA

KATALUNIAKO JOAQUIM RUYRA IKASTETXEAREN HEZKUNTZA-PROIEKTUA EZAGUTZEKO JARDUNALDIA, AZAROAREN 24AN, DONOSTIAKO EHU-N



Bartzelonako ingurunerik pobre eta gatazkatsuenetako batean dago Joaquim Ruyra eskola publikoa. Ikasleen % 92k jatorri atzerritarra dute eta ikasleen % 40k ez dute ikasturte osoa bertan egiten. Aurreiritzi guztien kontrara, bertako ikasleek kanpo ebaluazioetan ematen dituzten emaitzak Kataluniako batezbestekoaren oso gaineratik daude. Eta, baita “elitekotzat” jotzen diren ikastetxe askoren emaitzen gaineratik ere.

- Zer dago emaitza on horien atzean?
- Zein dira arrakastarako gakoak?
- Nola egiten dute lan?
- Zer-nolako proiektu pedagogikoa daukate?

Horren guztiaren berri emango dute Joaquim Ruyra-ko eskolako zuzendaritza-taldeko kideek azaroaren 24an, larunbat goizez, Donostiako Hezkuntzan, Filosofia eta Antropologia Fakultatean egingo den jardunaldian. Getan hasi eta 12etara bitartean. Ondoren, berriz, Sansomendi ikas komunitateko kideek “Ausarten Kluba” eta gatazken kudeaketarako eredu dialogikoa aurkeztuko dute.

Duela bi ikasturtetatik inguruko eta atzerriko hezkuntza jardunbide ego-kiak ezagutarazteko jardunaldiak eta bisita pedagogikoak antolatzen dihardu Hik Hasik, bereziki, Lehen Hezkuntzako profesionali begira. Besteak beste, El Martinet, Amara Berri, Reggio Emilia edota Waldorf eskoletako ereduak ezagutzeko aukera izan dugu. Esperientzia eredugarri horietako bi dira Kataluniako Joaquim Ruyra eta Gasteizko Sansomendi ikastetxeak. Eta horixe ezagutzeko aukera izango dugu azaroaren 24an Donostian.

Izena emateko eta informazio gehiagorako hikhasi.eus webgunera jo daiteke.

‘MUSUA’ DISKO-LIBURUA AURKEZTU DUTE PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS PAILAZOEK

Muxua eta sua. Bi hitz horien arteko hitz-jokoak ematen dio izena Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan azken lanari: *Musua*. Euren hitzak erabiliz, gure kulturari eta naturari ematen dizkieten muxu beroak jasotzen dira diskoan. Natura eta tradizioak batu dituzte lan hori sortzeko: Inauteriak, San Joan sua eta Gabonak, besteak beste. Disko-liburua ez dute bakarrik ondu. Leire Bilbaok sortu ditu hitzak; Xabier Zabalak, musika; ilustrazioak Maite Mutuberriak marraztu ditu eta diskoaren nahasketak Kaki Arkarazok egin ditu, Andoaingo Garate estudioetan.

Disko-liburua salgai dago jadanik eta ohiko disko eta liburu dendetan ez ezik, katxiporreta.eus webguneko dendaren atalean ere eskura daiteke, 18 €-ren truke.





Egun gutxi falta dira Euskaraldia hasteko, Euskal Herriko milaka herritar elkarrekin ariketa kolektibo batean murgiltzeko. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean, hamaika egunetan, Ahobizi eta Belarriprest txapak soinean jantzita ibiliko dira. Denak erronka berarekin: euren hizkuntza ohiturak aldatzea, euskaraz jende gehiagorekin hitz egitea. Esperimentu honen oinarri teorikoak ezagutzeko aukera izan du Hik Hasik Pello Jauregi Euskaraldiko sortzaileetako batekin egonda. Eta horrekin batera, 2016an ariketa kolektibo hau egin zuten herrian izan da: Lasarte-Orian. Orain bi urteko esperientziaren nondik norakoak kontatu dizkigute eta aurtengo erronka berriarenak ere bai: 12-16 urteko gazteekin ikerketa egitera doaz.

GAIA: EUSKARALDIA

Herritarren hizkuntza ohituretan eragiteko ariketa soziala

Guztion artean hizkuntza ohiturak astintzera goaz!”, irakur daiteke Euskaraldiaren webgunean. Horixe da, hain zuzen ere, Euskaraldiaren muina: herritarren hizkuntza ohituretan eragitea. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean Euskal Herriko milaka herritarrek euren hizkuntza ohiturak aldatzeko konpromisoa hartuko dute Ahobizi edota Belarriprest izanez. 400dik gora herri eta Euskal Herri osoko erakunde publikoak sustatzaile direlarik, Soziolinguistika Klusterrak ariketa sozial honen ikerketa lana egingo du. Batetik, hizkuntza ohiturak aldatzeko prozesuak aztertuko dira; eta bestetik, ekimenaren eragina nolakoa eta zenbatekoa den ezagutu nahi da.

Pello Jauregi Soziolinguistikan aditua da eta Euskaraldiko sortzaileetako bat, eta halaxe definitzen du Euskaraldia: “Hizkuntza ohiturak aldatzeko espazio sozial berezi bat behar da, ezaugarri zehatz batzuk dituen espazioa. Baldintza sozialak prestatu behar dira hizkuntza ohiturak aldatzeko eta Euskaraldiaren diseinuan baldintza sozial horiek biltzen dira”.

Aipatu baldintza horiek hiru direla dio Jauregik: kolektibotasuna, jokaera eta erosotasuna. “Hasteko, hizkuntza ohiturak aldatzea zerbait kolektiboa da, unitate txikiena bikotea da. Hizkuntza ohitura ez da inoiz zurea edo nirea, baizik eta gu biona. Biren artean eraikitzen den araua da. Aldatzekotan, bi aldeek egon behar dute nolabaiteko adostasun

edo armonia batean. Nik neuk hizkuntza ohiturak aldatu nahi baditut, baina zuk ez baduzu nahi, gatazka sortzen da eta aldaketa oso zaila izango da. Biok jarri behar dugu ados. Hizkuntza gaitasuna norberak banaka egin dezakeen zerbait da. Baina hizkuntza ohiturak beste batzuekin lortu behar den aldeko giro bat eskatzen du”, azaltzen du Jauregik. “Ohikoa izan da gure artean figura bakarrarekin lan egitea, beti euskaldunei begira, eta hori izan da kanpaina askoren fokua. Gure fokua, aldiz, hasieratik izan da kolektiboa, eta horregatik bi figura diseinatu genituen: Ahobizi eta Belarriprest. Alderdi bakoitzarentzat funtzio bat diseinatu behar da, bi aldeek egin behar dute zerbait. Hori da ikuspegi kolektiboa”.

Bigarren ezaugarria jokaerarena da. Hizkuntza ohiturak jokaerarekin du zerikusi zuzena. Jauregik dioen moduan, “ohitura jokaera bat da, behin eta berriz errepikatzen den jokaera bat, azkenean automatiko bihurtzen dena. Hortaz, jokaera da motorra; hizkuntza ohitura aldatzekotan, jokaeraren oinarritu behar da”. Horregatik, garbi zuten hasieratik egin behar zutenak praktika soziolinguistikoko bat izan behar zuela; erabileran oinarritua, alegia. “Euskarazko praktika soziolinguistikoa egiten denean, horrek berak dakar gerora baldintza sozial hobeak izango direla erabilerari berari errazago heltzeko”, azaltzen du Jauregik. “Erabileratik erabilerarako planteamendua dago hemen. Ez dugu motibazio kanpainarik egiten, ez da gaitasun kanpaina bat;

GAIA: EUSKARALDIA

Herritarren hizkuntza ohituretan eragiteko ariketa soziala

praktika kanpaina bat da. Hau da: Euskaraldiak jendeari gonbitea egiten dio hizkuntza jokaera berri bat probatzeko, esperimintatzeko edo praktikatzeko. Eta ahalik eta jende gehien anima dadin ariketa hori egitera, baldintza sozialak eraikitzen ditu: Belarriprest askoren aktibazioa, ekinbide masiboaren babesa, erakunde eta entitate ugariaren atxikimendua". Jarduera bera arrakastatsua baldin bada, orduan jendearen hizkuntza pertzepzioa aldatu egiten da: "A! Ba posible da euskaraz hitz egitea. Ez da hain zaila. Naturala izan daiteke". Jauregiren hitzetan, "praktikari esker pertzepzioa aldatzen denean, gero pertzepzio berri horrek elikatzen du hizkuntza praktikari heltzeko. Eta praktika hori errepikatzearen ondorioz, ohitura berri bihur daiteke". Beraz, hizkuntza praktika da planteamendu honen bultzatzaile nagusia.

Kolektibotasunarekin eta praktikarekin batera, erosotasuna aipatzen du Jauregik. Praktika hori egiteko nolabaiteko erosotasuna behar dela dio. Alegia, lan ikaragarria eskatzen badu edo komunikazioa oso nekeza baldin bada, zaila da pertzepzioa aldatzea. "A! Posible da!" esan beharrean "Uff, ze lana!" esaten badugu, kostu energetikoa handiegia da. Hala, pertzepzioa ez da aldatzen eta lehengo jokaerarekin jarraituko dugu.

"Horregatik planteatu dugu Euskaraldia euskaraz ulertzen duten pertsonen arteko ariketa modura. Pertsona batek



euskaraz egin nahi badu eta hizkuntza ohitura aldatu nahi badu, beste pertsonak gutxienez euskaraz ulertu behar du, gutxienez tarteko gaitasuna duela. Bestela, tarteko ulermenetik behera, neurritz kanpoko da euskaraz egiteko konpromisoa eskatzea. Gehiegi eskatzea da denekin euskaraz egitea. Horregatik, ulertzen dutenekin egiteko besterik ez zaio eskatzen Ahobiziari", azaltzen du Jauregik.

Ahobizi zara

Euskaraz egingo diezu ulertzen duten guztiei. Edonon, edonoiz eta ulertzen duen edonorekin arituko zara euskaraz.

Ezagutzen ez dituzunekin lehen hitza euskaraz egingo duzu, eta ulertzen baldin badute, hortik aurrerakoak ere bai. Horrela, orain arte euskaraz izan dituzun elkarrizketek euskarazkoak izaten jarraituko dute, baina orain arte erdaraz izandako elkarrizketa batzuk euskaraz edo elebizi izatea ere lortuko duzu.

Jarrera aktiboa izango duzu, beraz. Zure harreman sarean dituzun hizkuntza praktikak aztertu eta euskarara aldatzeko aukera duzun horietan eragingo duzu. Hamaika egunetan, hizkuntza aldaketarako aukeratu dituzun harreman horietan ez ezik, zure bizitzako esparru guztietan euskaraz arituko zara, ahal den guztietan, ahal duzun guztiekin.

Bi aldeek euskaraz ulertzen badute, ez dago euskaraz ez egiteko arrazoirik.

Ariketa egiten duzun bitartean giro babestua izango duzu, ahobizi eta belarriprest ugari izango baitituzu 11 egunez Euskal Herrian.

Ahobizi izateak ez du euskaraz hitz egiteko gaitasunarekin zerikusirik, jokaerarekin baizik! Ahal duzun guztietan euskara erabiltzeko prest? Ahobizi zara!

Belarriprest zara

Euskaraz dakiten guztiei zuri euskaraz egiteko gonbitea egingo diezu. Euskara ulertzen duzula adieraziko diezu eta zurekin euskaraz hitz egin dezatela esatu.

Zuk euskaraz edo erdaraz erantzungo duzu, baina zuri euskaraz egiteko eskatuko duzu.

Horrela, orain arte euskaraz izan dituzun elkarrizketek euskarazkoak izaten jarraituko dute, baina orain arte erdaraz izandako elkarrizketa batzuk euskaraz edo elebizi izatea ere lortuko duzu.

Jarrera aktiboa izango duzu, beraz, gonbitea egingo baitiezu euskal hitzunik zurekin euskaraz hitz egin dezaten. Oso garrantzitsua da zure funtzioa, euskarazko elkarrizketak sortzen lagundu eta euskara erabiltzeko giro babestua sortuko duzulako.

Ariketa egiten duzun bitartean giro babestua izango duzu, ahobizi eta belarriprest ugari izango baitituzu 11 egunez Euskal Herrian.

Belarriprest izateak ez du euskaraz hitz egiteko gaitasunarekin zerikusirik, jokaerarekin baizik! Dakienari zuri euskaraz hitz egiteko gonbitea egin nahi diezu? Belarriprest zara!

Ahobizi eta Belarriprest

Ariketa horretako protagonistak Ahobizi eta Belarriprest izango dira. Biak. Biak baitira beharrezkoak. Biek daukate funtzio ikaragarria. Ez dago hierarkiarik bien artean, ez da bata bestea baino garrantzitsuagoa. Kolektibo bat da. “Ezin dugu pentsatu euskararen erabilera igotzeko euskaldun guzti-guztiek kontzientzia eskuratu eta Ahobizi gisa jokatu behar dutenik. Hori ezinezkoa da”, argitzen digu Jauregik. “Ahobiziak gutxi batzuk izango dira, eta haiei kontzientzia puntu bat eskatzen zaie, konpromiso bat, denbora tarte batean erronka bati heltzeko eskatzen zaie. Ahalegin horri hizkuntza kontzientzia edo hizkuntza gogoa esan da-kioke. Baina Ahobizi horiek aldamenean behar dute agian hizkuntz kontzientzia handirik gabeko baina jarrera ona eta ulertzeko gaitasuna duen eremu zabal bat: eta horiek Belarriprestak dira. Ahobiziak eta Belarriprestak elkartzean, onartua izango da Ahobizien euskarazko jokaera, eta horrek berezko indarra sortuko du Belarriprestek ere euskarara egokitzeko. Zenbait diskurtsok dio euskararen erabilera sustatzeko jende askok eta askok kontzientzia hartu beharko lukeela. Baina nik uste dut horrek ez dituela mekanismo soziologiko sakonak aintzat hartzen. Mugimendu sozialak aztertuz gero, beti ikusten dira sektore minoritario batzuk, prozesuak astintzen dituztenak, eta bideak urratzen dituztenak, eta mugimendu horiek nagusitzen direnean, aitzindarien ondoan beti antzematen dira giza-multzo zabalak ontzat hartzen dutenak bide-urratzaileek jorratutako bidea. Zentzu horretan, guretzat Ahobizi eta Belarriprest biak dira ezinbestekoak”.

Horrela, Ahobiziek hizkuntza kontzientzian oinarrituta euskarazko jokaerari eutsiko diote eta Belarriprestek euskaraz egiteko gonbitea luzatuko dute: ‘mesedez, egidazue euskaraz’. Belarriprestek bi baldintza betetzen ditu bere baitan. Lehenengoa: ‘nik ulertzen dut, beraz, nirekin euskaraz egin dezakezu nolabaiteko erosotasunarekin’, esaten du. Eta bigarrena: ‘gainera, jarrera ona daukat, jarrera irekia daukat, eta euskaraz egiten badidazu, gustura entzungo dut, ez dut gaizki hartuko, ez dut pentsatuko egoera behartzen ari zarenik’. Jauregik azpimarratzen duenez, “Zeregin hori guztiz funtsezkoa da. Zeren normalean euskaraz egin nahi dugun askok ez baitugu egiten pentsatzen dugulako bestea molestutzen ari garela, behartzen ari garela... Beraz, Ahobizi batek eroso aritzeko, pertzepzioa aldatu behar du. Eta nork laguntzen dio pertzepzioa aldatzen? Belarriprestek”.

Belarriprestek bi jarrera horiek ditu: jarrera irekia eta ulertzeko gaitasuna. Gauzak horrela, euskaraz egin nahi duenari eroso gerta dakioke halakoekin euskaraz egitea. Horrelako pertsonekin praktika egitea erraza izan daiteke. Horrek pertzepzio aldaketa dakar eta praktika berri bat sortzea. Eta praktika berri hori ohitura bihur daiteke.

Jende askok Ahobizi euskaldunarekin identifikatzen du

eta Belarriprest zailtasunak dituenarekin. Eta hori ez da beti horrela. Bi figura hauek gaitasunarekin baino gehiago jokaerarekin daude lotuta. Euskaldun batzuek Ahobiziren jokaera eta konpromisoak hartzeko prest daude, baina beste euskaldun batzuek konpromiso horiei gehiegitxo iritzita, Belarriprest eginkizuna hartuko dute. Ahobiziri bi gauza eskatzen zaizkio: ulertzen duenarekin euskaraz egitea nahiz eta hark erdaraz erantzun, eta lehen hitza beti euskaraz egitea. Orduan, egoera batzuetan Ahobizik prest egon behar du ele biko elkarrizketetan aritzeko: berak euskaraz eta solaskideak erdaraz (ulertu arren, ez baitu euskaraz jarduteko erraztasunik). Euskaldun batek ez balu bere burua ikusiko ele biko elkarrizketeei eusteko gai, ez luke Ahobizi baten zeregina beteko, eta hobe luke Belarriprest zeregina hartu. Aitzitik, euskaraz hitz egiteko gaitasun mugatua duen hainbat jendek Ahobiziren zeregina har lezake, pertsona horiek, zailtasunak zailtasun, prest daudelako 11 egunez euskara ulertzen dutenekin euskaraz hitz egiteko.

Hizkuntza simetriaren mekanismoa

Egunerokotasunean, kaleko, etxeko zein lantokiko elkarrizketetan eta hartu-emanetan badago beste mekanismo natural bat ere: hizkuntza simetriarako mekanismoa. Alegia, bi pertsona eroso sentitzen dira hizkuntza berean hitz egiten dutenean. Hori da hizkuntza simetria. Baina deseroso sentitzen dira hizkuntza desberdinetan hitz egiten dutenean. Horri hizkuntza asimetria esaten zaio. Demagun egoera asimetriko bat non batek euskaraz eta besteak erdaraz egiten duen, eta biek ulertzen dituzte erdara zein euskara. Egoera asimetriko horretan, deserosotasuna age-rian izanik, erosotasuna eskuratzeko joerak eramango ditu kideak hizkuntza berean hitz egitera, elkarrizketa hizkuntza bietako edozeinetan izan daitekeenez. Zein hizkuntza nagusituko da? Zein hiztunak berea utzi eta bestearena hartuko? Bere hizkuntzari gehien eusten dionak markatuko



GAIA: EUSKARALDIA

Herritarren hizkuntza ohituretan eragiteko ariketa soziala

du bidea, eta beste solaskideari egokitzeko beharra sorraraziko dio, hizkuntza simetriarako mekanismoaren eraginez.

Ahobizien zeregina da euskarari eustea, horrek solaskideei beharra sor diezazien euskarara egokitzeko. Hizkuntza simetria mekanismoaren eraginez, Belarriprest askok euskaraz egingo du Ahobizi batekin dihardunean. “Konturatzan gara euskararen erabilera normalizatuko bada, gutxi batzuek euskaraz egin behar dutela erabateko normaltasunarekin. Eta horiek euskarara erakarriko dituzte besteak, normalean egiten ez dutenak baina gaitasuna dutenak. Lehenengoek beharra sortuko diete bigarrengoei hizkuntza simetriaren mekanismoa dela medio”, azaltzen du Jauregik.

Zergatik 16 urtetik gorakoentzat?

Galdera hori azkar erantzun du Soziolinguistikan adituak. “Erabilera gauza kolektiboa dela esan dugu, eta sozialki gizartea ere modu kolektiboan osatzen da, belaunaldien arteko ikuspegi kolektiboan. Alegia, helduak eta haurrak. Euskararen etorkizuna haurren kontua zela pentsatu izan dugu, ahaztuta zer erlazio dagoen helduen eta haurren artean. Haurraren garapenerako motorra imitazioa da; helduei begira daude jakiteko nola jokatu behar duten, nola ez duten jokatu behar, zer espero den haiengandik, zer ez... Nerabeak gizarteari begira daude, lan mundura begira, eta han helduak ikusten dituzte. Etengabe helduei begira daude. Orduan, helduek ez badute aurrerapauso nabarmenik ematen eta desoreka ikaragarria baldin badago haurren munduaren eta helduen munduaren artean, euskalgintza hanka bakarraren baitan doa”.



Baina ibiltzeko bi hanka behar dira, eta helduena falta da. Haurrena bideratuta dago, bere zailtasunekin eta mugekin. Baina helduen mundua bizkortu behar da. “Konturatu behar dugu guk helduok daukagun hizkuntza ohitura seguras-ki izango dela gure seme-alabek izango dutena. Guk jartzen dugu eredia, guk markatzen dugu bidea, gu garelako gizartearen belaunaldi aktiboa eta benetan boterea daukaguna. Helduen esparrua azpigaratuta dagoelako, bertan jarri nahi izan dugu ekimen honen fokua”, dio Jauregik. “Bigarren hanka landu behar dugu, euskalgintza zutitu eta ondo joan dadin. Zeren hanka bakarrarekin herren gabiltza, bueltaka eta toki beretik mugitu gabe. Zergatik euskaraz jakin arren, ez du euskaraz egiten haur eta gazte askok? Seguraski, helduen mundua erdarazkoa delako. Haurrak txikiak direnean azpimundu batean bizi dira, baina adinean aurrera egin ahala, gero eta gehiago daude helduei begira eta haien pareko izan nahia eta imitazioa indartzen dira. Beraz, helduoi dagokigu euskalgintzari oreka ematea, Horregatik, hortxe jarri du arreta Euskaraldiak”.

Eman dezakeen fruituari begira jarrita

Euskaraldiaren baitan dauden oinarri teoriko horiek denak aurretik landuta zituen Soziolinguistikan adituan den Jauregik. Orain dela sei-zazpi urte lan munduan Aldahitz proiektuarekin hasi ziren hizkuntza ohituren aldaketa ikertzen, Eusle metodologia praktikan jartzen eta emaitzak neurtzen. Bazegoen, beraz, oinarri sendo bat. Hortik abiatuta, kalerako egokitu zuten duela bi urte Lasarte-Orian: ikerketa baten barruan egin zuten ariketa sozial bat izan zen. Orain, Euskal Herri osoan egingo da ariketa.

Euskaraldiaren mezua oraindik jende eta sektore guztien-gana iritsi ez bada ere, lehendabiziko harria ondo jarria dagoela dio Euskaraldiaren sortzaileetako bat denak. Haren hitzetan, “masiboa izango da, ilusio handia piztuko du, praktika aldatu egingo da eta zerbait geldituko da ondorenean”.

“Inork ez zidan esan euskaldun izatea zein nekeza den”, abesten zuen Ruper Ordorikak. Eta hamaika egun hauetan neke hori asko arinduko da. Hainbeste jende txaparekin ikustea, bai herrian, bai herritik kanpo, kuadrilan, telebistan, politikoak, aurkezleak... “Benetan euskaraz bizi nahi duten horiek irribarre handi batekin egongo direla uste dut. ‘Honekin euskaraz egin dezaket, eta horrekin ere bai, eta harekin ere bai...’ Horrek, psikologia sozialaren ikuspegitik, ilusio ikaragarria piztuko du. Erraztasun handiak izango dituzte euskaraz egin nahi dutenek eta jende askorekin egingo dute. Handitu egingo da egun horietan euskaraz egiten dutenen kopurua, euskaraz dezente gehiago entzungo da, eta beraz, susperraldi bat, astinaldi bat egongo da. Praktika soziolinguistikoa ez da ohikoa izango hamaika egun horietan, handitu egingo da. Ikusgarria izango da. Jende asko ikusiko dugu irribarre batekin. Masiboa izango dela uste dut. Eta masiboa den neurrian, oso babestuta sentituko gara, oso identifikatuta. Gerora arrastoa utziko du”.

Lasarte-Oriako emaria

Orain dela bi urte, 2016an, Lasarte-Orian Euskaraldia egin zen, baina beste izen batekin. “Baietz 40 egun euskaraz! Irten armairutik” deitu zioten herri-erronkari. Euskaraz ulertzen edo hitz egiten zuten lasarte-oriatar guztiei zuzendua zegoen. Batzuei, hizkuntzaren armairutik irteteko proposatzen zitzairen, eta beste batzuei, armairutik ateratakoak anima-tzea eta laguntzea. Armairutik ateratzeak esan nahi zuen gaztelaniaz hitz egiteko ohituratik ateratzea eta hizkuntza portaera euskarara ekartzea. Eta horretarako sortu zituzten beharrezko diren bi figurak: Ahobizi eta Belarriprest.

Iñaki Arruti Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuko buruak dio Lasarte-Oria ez dela berezia, baina 2016an hainbat egoera suertatu zirela, eta horrexegatik egin zutela ariketa soziala lasarte-oriatarrek gainerako euskal herritarren baino lehenago. “Hasteko, herriko euskalgintzako hainbat erakunderen urteurrenak ospatzen genituen 2016an: Landaberri ikastolak 50 urte, Ttakun Euskara Elkarteak 25 urte, bertso eskolak 25 urte... Halako urteurren handi baten ukitua zegoen. Eta horrekin batera, Euskararen Maratoiaren 9. edizioa genuen” azaltzen du Arrutik. Euskararen Maratoia lau urtez behin ospatzen dute Lasarte-Orian. 1986an egin zuten lehendabiziko aldiz, Agustin Mujikaren ideia zoro batetik abiatuta: herriko plazan 40 orduz segidan euskaraz aritzea. Geroztik lau urtetik behin ospatu dute eta 2016an tokatzen zen 9.a. “Orduan, pentsatu genuen ea zergatik ez genuen denok elkarrekin maratoia ospakizun zentro gisa hartzen”, gogoratzen du Arrutik. “Baina, zer egin?”.

Garai beretsuan, Donostiako Egia auzoan “Egian euskaraz” ekimena eraman zuten aurrera eta hura ikustera joan ziren Lasarte-Oriatik. Lutxo Egiak Bilbon egin zuen esperimentazioan oinarritzen zen: euskaldun elebakar bat nola moldatzen zen Bilbon. Egian jende multzo bat astebeteko txandatan ulertzen zuten guztiei euskaraz egitera konprometitu zen.

Horrekin batera beste osagai bat aipatzen du Arrutik: Lasarte-Orian Ferran Suay eta Gemma Sanginesekin egindako TELP ikastaroak. Haien *Sortir de l’armari lingüistic* liburua asertibitate linguistikoa lantzeko da: nolatan eutsi hizkuntza jardunari beste hizkuntzaren eskaeretara belaunikatu gabe baina agresiboa bihurtu gabe. “Baina ikastaro haiek maila pertsonalean geratzen ziren. Guk zerbait gehiago nahi genuen”, dio Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuko buruak.

“Horren haritik, Soziolinguistika Klusterrak egindako Eusle metodologia ezagutzen genuen. Metodologia horrek,

asertibitate linguistikoa ekintza pertsonala izatetik ekintza kolektiboa izateko aukera ematen du. Metodologia horretan planteatzen dira Eusle eta Uzle figurak eta guk Ahobizi eta Belarriprest bihurtu ditugunak”. Horri gehitzen dio Arrutik metodologia hori diseinatzen eta lantzen aritu zen Pello Jauregirekin zuen harremana eta konfiantza. Eta hortik etorri zen ariketa soziala ikerketa bihurtzeko pausoa. “Gako nagusietako bat zen ikerketa bezala planteatzea. Ahobizi eta Belarriprest bai, baina horrek zer emango du? Segituan jakingo genuen zenbat jendeak emango zuen izena, baina Ahobizi bezala astebez aritzea erabaki zuten haiek arituko al ziren? Beraien astea hasi aurreko eta ondorengo hizkuntza ohiturak berdina izango al ziren? Aldatzea lortuko al zuten? Hori ikertzeko beharra ikusi genuen eta hori izan zen gako nagusietako bat”.

Beste gakoetako bat ulermenaren orokortasuna izan zen. “25 urtetik beherako guztiek dakite jada euskaraz. Azken 30-40 urteotako inbertsioaren ondorioetako bat da. Gero eztabaida dezakegu gaitasuna nahikoa den ala ez, baina ulermena lortu da eta orain beste aukera batzuk irekitzen zaizkigu. Eta hori zen erakargarria, erakartzeko indarra duen zerbait, bihurtzeko, beste klabe bat: Lasarte-Oria bezalako herri erdaldun batean ulermena nagusitu da, eta horrek aukera ematen digu Ahobizi eta Belarripresten ariketa kolektibo masibo bat egiteko hizkuntza ohituren aldaketan. Hori da hemen dagoen kontzeptu berri nagusia. Gaitasuna bultzatzearekin ez da nahikoa, *Korrika* behar dugu jendea alde egoteko eta abar, baina azkenean, gakoa erabilera da. Eta erabilera ez datorkigu berez, inertiak kontra ditugu eta ondorioz, aldaketak sorrarazi behar ditugu, bereziki hizkuntza ohituretan. Horretarako balio duen tresneria berri bat probatu genuen guk”.

Proba hori egiteko beste bi osagai garrantzitsu ere bazituzten: ludikotasuna eta azpiegiturak. “Euskararen maratoian zortzikote bat aritzen da oholtzan eta edozer gauza egiteko prest daude beti. Azaleko kontua dirudi, baina hor bai dugula altxor txiki bat herrian. Euskara plazara modu alai, berritzaile eta eraginkor batean ateratzen asko laguntzen du eta egiten ari den horretan sinesten duen ekipo bat bihurtu da Udaleko euskara-zerbitzuaren eta Ttakunekin uztartuta. Osagai horiek eta ekintza soila behar zuena ikerketa-ekintza bihurtu izana izan ziren orain bi urte egindakoaren muina.

Eta azpiegitura aldetik ere ondo gabilta. Kritikatu egiten ditugu azpiegiturak eta nik ere bai batzuetan, baina Euskara Zerbitzu eta Euskara Elkarte indartsu bat egon ezean, ideia haiek bere horretan gelditzen dira: ideia zoroetan. Baliabideak behar ditugu, XXI. mendean gaude, munduan

GAIA: EUSKARALDIA

Herritarren hizkuntza ohituretan eragiteko ariketa soziala

hizkuntza gutxituak galtzen doaz, eta serio heldu behar diogu, baliabideak jarritz”, dio irmoki Arrutik.

Lasarte-Oriatik Euskal Herrira

Ariketa oso ondo atera zen eta Pello Jauregik ikerketaren emaitza kuantitatiboak zein kualitatiboak neurtu zituen. Kuantitatiboak, nabarmentzekoak, hasteko, ia 2.000 pertsonak parte hartu zutela, eta Ahobizien hizkuntza ohiturei dagokienez, erronkarekin hasi aurretik % 62ak egiten zuen euskaraz bere harreman-sarean eta astebeteko erronkaren ondoren, berriz, % 84ak. Eta hiru hilabete ondoren, ohiturari ia bere horretan eusten zioten: %81. Nahiz eta ariketa epe mugatukoa izan, denbora luzerako marka utzi zuen.

Datu kualitatiboak jasotzeko, berriz, kuaderno bat sortu zuten eta txanda aldaketan parte hartu zuten Ahobizi guztiek lau galderari erantzun zieten bertan. “Jasotako erantzunetan energia sentitzen zen”, gogoratzen du Arrutik. “Zerbait berezia izan da, ikaragarria izan da’... horrelako esaldiak zeuden. Eta kontuan hartu behar da ez garela ari festa batean parte hartzeaz, baizik eta norberaren hizkuntza ohiturak aldatzeaz”.

“Gureak ez zeukan gerora hartu duen lan-lerroa izateko pretentsiorik. 2016 berezi hartan egin genuen eta kito”, dio Arrutik. “Baina Topaguneko Iker Martinez de Lagosi kontatu nion ze emaitza geneuzkan, ze sentsazio... Estitxu Alkorta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzako Euskara zuzendaria herritarra dugu. Zuzen-zuzenean ezagutu zuen esperientzia eta harekin ere bildu nintzen”. Batari zein besteari bota zien enbidioa. Eta baita 2017ko Udaltop-en bildutakoei ere. “Euskal Herriko Euskara Zerbitzuok urtero jardunaldi bat egiten dugu eta 2017an hizkuntza ohituren aldaketa hartu genuen gaitzat. Oinarri teorikoak eta han eta hemengo esperientziak aurkeztu ziren. Eta handik, oinarri batzuk prestatu eta Euskal Herri osoan egiteko Euskaraldia iragarri zen”.

Lasarte-Oriatik atera zen gaia, baina hasi aurretik beraien ereduaren oinarriak zein ziren azaldu zuten lasarte-oriatarrek. Azpiegiturak garrantzitsuak diren moduan, elkarlana ere garrantzitsua zela azpimarratu zuten. “Hau udalen elkarlanik gabe eta euskalgintzarik gabe ezin da egin”. Eta hori izan da Euskaraldiaren oinarrietako bat: herri batek izena eman badu, eman du herri hortako erakunde publikoak eta herri hortako euskalgintzak (euskara elkarteak, eskola... dagoena) bat egin dutelako, adostasun bat egon delako.

Euskaraldiaren ikerketaren ardura Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak hartu du eta Soziolinguistika Klusterrarekin batera bilduko dituzte datuak. Herri bakoitzak bere datuak jakiteko aukera ere izango du.

Euskaraldia ez da aurtengo kontua soilik izango. Arrutik

definitzen duen moduan, “ez da etxafero bat, edo ez du etxafero izan nahi, lan-ildo bat baizik”. Udaltopon 2018ko jardunaldian aurkeztu zen lan-ildo iraunkor bat izango dela. Lehen urte honetan herritarren ariketa sozial masiboa egingo da. Eta beste urte batean kolektibotasunean jarriko da fokoa, hau da, erakundeetan. Ahobizi eta Belarriprest erakunde batekoak diren neurrian, erakunde horri neurriren bat edo beste hartzea eskatuko zaio Ahobizi eta Belarriprest horiek praktika linguistikoa errazagoa izan dezaten. Ideia gehiago landu behar da, baina horiek dira oinarriak.

Lasarte-oriatarren erronka berria: gazteen hizkuntza ohituretan eragitea

Esperimentaziorako gogoia gelditu zitzaizen lasarte-oriatarrei, eta aurtun, gainerako herrietan bezala Euskaraldia egiteaz gain, beste erronka bat planteatu dute: 12-16 urteko gazteekin esperimentatzera doaz, baina aurreko formatoan: ikerketa esperimentu bat egingo dute, ikerketarekin eta prozesu antolatu batean, ikusteko ea adin tarte horretan hizkuntza ohituren gaineko lanketa egin daitekeen, ea emaitzarik baduen eta ea esportagarria den.

2017an Landaberri ikastolak eta Lasarte-Oriako institutuak bat egin zuten, Oriarte institutua sortuz. Hizkuntza ikuspegitik kezka sortu zuen fusio hark, eta egoera baliatu nahi izan dute esperimentua egiteko. Ikastetxeak baiezkoa eman du, Udalak ere bai, Tkakun Euskara Elkarteak dinamizatzailerak jarri ditu, lan talde bat ikerketa bera eta antolaketa guztia elikatzen ari da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren sostengua izango du. Ikerketa den heinean, ondorioak eta emaitzak aterako dira eta liburu-gida batean argitaratuko dira gero, jendeak eskura izan dezan eta erabil ditzan.

Euskaraldia nerabeentzat egokitzen ari diren honetan, hiru arlo nagusi landuko dituzte Lasarte-Oriate: ariketa bera, lehendik martxan dauzkaten Elemeleka sentsibilizazio saioak eta gazteen batzordeak. Iñaki Eizmendi ikerketa lan taldean buru-belarri dabilen kideetako bat da eta josten ari diren hariak ondo ezagutzen ditu. “Hasieratik argi izan dugu gazteentzat lorgarria den zerbait egin behar dugula. Gure herriko egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta, oso-oso zaila da gazteak Ahobizi izatea, eskatzen duen konpromisoa betetzea. Izan ere, 11 egunetan beraien inguruko guztiekin euskaraz egin behar dutela esan nahi du (denek ulertzen dutelako...) eta Lasarte-Oriateko errealtatean nerabe batentzat hori oso-oso zaila da. Gauzak horrela, gure helburua da Belarriprest figurari pisua ematea eta daukan kutsu pasiboa kentzea. Belarriprestek ez du esan nahi pasiboa izan behar duzunik, oso aktiboa izan zaitezke, etengabe euskaraz egiteko gonbitea egiten ari baitzara. Belarriprestek esan nahi du: ‘niri euskaraz egitera gonbidatzen zaitut’. Bi Belarriprest baldin badaude, bata besteari euskaraz egitera gonbidatzen ari da. Hori da bul-tzatzen duguna. Baina ez du derrigorrean euskaraz aritzeko



konpromisorik hartzen, Ahobizi batek bezala. Presio hori kendu nahi diogu”.

Behin Belarriprest aktibo asko lortuta, presioa kenduta eta giroa sortuta, Ahobizi batzuk sartuko dituzte. Baina mugatuak izango dira, ez nahi duten guztiak. Lasarte-Oriako planteamendua honako hau da: ‘zein zaudete Belarriprest izateko prest?’ Hori landuko dute. Eta gero, horren barruan Ahobizi batzuk proposatu. “Beraientzat lorgarria den zerbait egin behar dugu. Badakigu zaila dela, baina gazteek ikusten badute euskara gehiago erabiltzeko ahalegina egin dutela, saiatu direla, gustura aritu direla, ondorio batzuetara iritsi direla eta abar, horrek izugarritzko eragina du jarretan. Hizkuntza ohituretan bai, baina jarretan ere bai”, dio Eizmendik.

Ariketa honek beste alderdi interesgarri bat ere badu: herriko helduekin lotura egiteko aukera izango dute. “Askotan kepatzen gara nerabeek ez dutela erreferentziarik hizkuntza ohiturei dagokienez, ereduak falta zaizkela. Ez dutela ikusten benetan jendea euskara erabiltzeko ahalegina egiten eta hizkuntza ohituretan jende koherentea”, dio Eizmendik. “Bada 11 egun horietan Ahobizi eta Belarriprest pila bat ikusiko dituzte herrian. Eta egoera hori aprobeixatu nahi dugu gazteen eta helduen arteko lotura egiteko”. Horretarako hainbat erronka proposatuko dizkiete gazteei. Esate baterako, lau Ahobizirekin argazkia ateratzea eta zergatik diren Ahobizi galdetzea. Eta beste egun batean beste lau Belarriprestekin argazkia ateratzea eta haiei ere zergatik hautatu duten rol hori galdetzea.

Institutu berean Batxilergoa egiten ari diren 16-18 urte bitarteko gazteek Ahobizi eta Belarriprest txapak eraman- go dituzte, Euskaraldian parte hartuko duten gainerako

herritarrek bezala. 12-16 urte bitartekoek, aldiz, ez dituzte txapa berberak erabiliko. Beraiek asmatutako marrazkiz egindakoak erabiliko dituzte.

Elemeleka saioak

Oriarte institutuarekin Elemeleka izeneko programa bat dauka hitzartuta Udalak. Euskarako eskoletatik aparte egiten diren saioak dira, institutuan bertan, 15 egunero Ttakun Euskara Elkarteko dinamizatzaileekin, eta DBH 1-4 eta Batxilergoko 1-2 mailakoek hartzen dute parte. Hizkuntza hainbat arlotatik lantzeko programa jarraitu bat da, ukitu soziala duena eta praktika soziolinguistikoak bultzatzen dituena. Horren barruan hainbat ekintza egiten dira: sentsibilizazio saioak, motibazio ikastaroak, gazteen jergaren azterketa, asertibitatearen lanketa aurrena eta gero hizkuntzaren asertibitatearena, kale neurketak eta emaitzen azterketa... Eta aurten, hori dena Euskaraldiarekin lotu dute. Elemeleka programa hizkuntza ohituren aldaketan zentratu dute aurten eta egingo duten ariketa-ikerketarako erabiliko dituzte lehendik antolatuta dauden saioak. “Lasarte-Orian dauden nerabe guztiak lan egiteko aukera ematen digu Elemelekak”, gaineratzen du Eizmendik.

Irailtik abendura bitartean DBH 1-2ko talde guztiak hiru saio egingo dituzte eta DBH 3-4 eta Batxilergokoekin launa saio. Guztira ia 100 saio emango dituzte Ttakuneko dinamizatzaileek. Azken saioak Euskaraldiaren ondoren egingo dituzte, abenduan, balorazioa egiteko. Eta gainerakoak aurretik. “Saio horietan Euskaraldiarekin lotuta zer landu nahiko genukeen irudikatu dugu”, azaltzen du Eizmendik. “Saio bakoitzak helburu bat dauka eta saio guztien artean lotura egina dago, bilakaera bat dago”. Alde batetik, Euskaraldiaz hitz egin dute, duela bi urteko esperientziak

GAIA: EUSKARALDIA

Herritarren hizkuntza ohituretan eragiteko ariketa soziala

eta aurtengoan nola parte hartuko duten. Eta bestetik, eleaniztasunaz eta hizkuntza ohiturez hitz egiteko baliatu dituzte saioak. Eleaniztasunaren aldeko mezua zabaldu dute, euskara jakiteak zein abantaila dituen ezagutaraziz eta identitate kolektiboaren ideia landuz. Hizkuntza ohiturei dagokienez, euskaraz gehiago hitz egin nahi dutenek edo interesa eduki dutenek zer zailtasun izan dituzten izan dute hizpide. “Esate baterako, DBH 3-4koekin, oro har, ohiturez hitz egin genuen eta astebetean institutuan bertan hizkuntzarekin zerikusirik ez zuten bi ohitura aldatzea proposatu genien: kolore desberdinetako galtzerdiak janztea, txapela janztea... Ahal zela institutuko dinamika oztapatzen ez zuen ohitura bat”, kontatzen du Eizmendik. “Bigarren saioan zer moduz atera zen hitz egiten zuten: zaila izan al zen, ondo pasa al zuten... Eta ondoren, hizkuntza ohitura bat aldatzea proposatu zitzaien: aukeratu pertsona bat, egoera bat eta saiatu aurrerapauso txiki bat ematen. Ariketa xume bat, baina ohiturak aldatzeak dakarrena ikusteko baliagarria”, dio Eizmendik.

Gazteen batzordeak gazteen neurriira

Elemelekako ia 100 saio horiei beste dinamika bat gehitu diete Lasarte-Orian: gazte batzordeak. Elemelekako saioetan nerabeei gazte batzordeak sortzeko proposamena luzatu diete. “Oso ohikoa da institutueta gazte batzordeak egotea. Normalean irakasle batek hartzen du batzordearen ardura eta ikasgela bakoitzetik ordezkari bat hartzen da. Gero, euskararen egunerako zerbitzuak prestatzen dute, Korrika datorrenean... Horrela funtzionatzen du leku askotan”, esplikatu du Eizmendik. “Guk, ordea, beste planteamendu bat egin dugu: borondatezkoa izatea bertan parte hartzea, hau da, nahi duenak ematea izena, eta dinamizatzailea ez izatea irakasle bat, baizik eta herriko beste gazte bat, beraiek baino helduxeagoa. Beraiei erreferente



bat jarri nahi diegu, eta hobe horrelako erreferente bat irakasle bat baino”.

Hala, Ttakuneko bi gaztek dinamizatzen dituzte sortu diren gazte batzordeak. Nerabeak bi eraikinetan daude Lasarte-Orian eta bakoitzean gazte batzorde bat sortu dute: eraikin batean DBH 1-2koekin eta bestean Batxilergoekin. “DBH 3-4koak Batxilergoekin batera daude, eraikin berean. Hasieran horiekin ere sortzeko asmoa genuen, baina Batxilergoan deialdia egin eta 30ek eman zuten izena. DBH 3-4koekin gauza bera pasaz gero 60ra gindoazen eta gehiegi zen dinamizatzeke. Beraz, momentuz, bi gazte batzorderekin geratu gara”, dio Eizmendik.

DBH 1-2ko gazteen batzordeak herriko girotzetara lanean hartuko du parte, deialdiak egingo dituzte, Batxilergoekin batera ekintza batzuk egingo dituzte eta abar. Batxilergoekin lip-dub bat egingo dute eta ingurukoak Belarriprest izan daitezten animatuko dituzte.

Batzordeak martxan daude jada, beraz, eta abendura bitartean Euskaraldiaren inguruko dinamika izango dute. Haatik, aurrerantzean ere jarraituko dute beste dinamika batzuekin. Betiere gazteen hizkuntza ohiturak erdigunean jarrita. “Soziolinguistika Klusterrak ikerketa bat egin zuen duela zortzi urte-edo gazteen hizkuntza ohituretan zein faktorek eragiten zuten ikertzeko”, azaltzen du Eizmendik. “Oso interesgarria izan zen, oso faktore garbiak ikusten baitira: erreferenteak direla, hizkuntza zein balioekin lotzen duten, hizkuntza arauak... Arlo horietan lan egin daitekeela planteatu diegu. Horren barruan nahi dutena egin dezakete, baina egiten dutenak zentzua eduki dezala eskatzen diegu”.

Ikerketa honek bi fruitu emango ditu. Alde batetik, Elemelekako abenduko saioak balorazioa egiteko erabiliko dira, zer eragin eduki duen neurtzeko. Neurketa kuantitatiboa zein kualitatiboa egingo dute. Ikerketak eman duena liburu batean bilduko da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz. Eta bestetik, DBH eta Batxilergoko gazteekin egin diren saioak eta ekintzak programatu egin dira, adin tarte bakoitzerako gauza desberdinak eta egokituak eginez: saio bakoitza planifikatu, bakoitza bere helburuarekin, garapen batekin, lanketa batekin eta bukaeran ebaluatu. Guztira ia 100 saio egin dituzte eta oso material aberatsa bilduko dute. Horri gazte batzordeetan egin den lana eta ekintzak gehitu behar zaizkio. Iñaki Arruti Udaleko Euskara Batzordeko buruak dioen moduan, “honek arrastoa utziko du. Denok gaude adin horiei begira eta ez dakigu zer egin. Bada, txapak jartzeaz gain, goazen fundamentuzko zerbitzu egitera, egiten dugunak balio duen edo ez ikustera, eta goazen material hori guztia argitaratzeko moduan jartzera”. Hori da bigarren zatia eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egingo duena. Eizmendik dioen gisa, “ez dago formula magikorik, baina egindakoa hor egongo da eta interesa duen edonoren eskura jarriko dugu”.

Euskaraldiko egunetarako zenbait ideia ikastetxeentzat

Hainbat ikastetxetatik Euskaraldiaren inguruko aholkuak eta proposamenak eskatu dizkiete Ebete-ri, haur eta gazteen euskararen erabilera sustatzeko baliabideak eta tresnak eskain-tzen dituen elkarteari. Iñaki Eizmendi bertako arduraduna jakitun da hainbat eskola eta institututan dagoeneko bidea garatzen ariko direla eta planteamendu onekin, gainera. Edonola ere, eskaerari erantzuteko asmoz, Ebetetik zenbait proposamen aurkeztu dituzte ikasleek Euskaraldian parte har dezaten. Ekarpen horren laburpena duzue ondorengoan. Informazio gehiago nahi duenak Ebeteren blogean aurkituko du: www.ebeteus/hezitzaile-berritsuak

Zer hartu kontuan?

Euskaraldia 16 urtetik gorakoentzako ekimena da. Ariketa sozial horren helburua, berriz, helduen hizkuntza ohituretan eragitea da, eta ezaugarri guztiak horren arabera landu dira. Beraz, ez da komenigarria Euskaraldia besterik gabe haur eta nerabeei bere horretan eskaintzea:

- Ahobizi eta Belarriprest rolak betetzea 11 egunetan oso zaila egingo zaie. Beharbada, testuinguru euskaldunetan ez, baina bai beste guztietan. Ez da euskararen aldeko kanpaina bat, hori baino askoz gehiago da.
- Helduei begirako ekimena haurrentzako jai bat bihurtzeko arriskua nabarmena da eta, gainera neurri handi batean, eskolarekin lotutako zerbait.

Baina, bestalde, Euskal Herrian azken hamarkadetan sortu den ekimen berezietakoa izango da eta hedapen oso handia izango duena. Ondorioz:

- Hainbat eta hainbat herritan Ahobiziak eta Belarriprestak kalean oso nabarmen ikusiko dira. Hizkuntza ohiturei dagokienez ikasleek inoiz izan dituzten baino erreferente eta eredu gehiago izango dituzte inguruan.
- Aukera bikaina da haurrekin eta nerabeekin hizkuntza ohiturei buruz hitz egiteko, beraiekin saiakeraren bat egiteko edo beraiek eragile bihurtzeko.

Ebetetik honako proposamena egiten dute:

- Ekimena bere horretan ez kopiatu eta aurrera eraman. Ikasleei begira ez da egokia eta herri mailako ekimenean eragina izan dezake.
- Baina ekimena egokitu eta baliatu liteke ikastetxeen eta institutuen helburuei begira.

Euskaraldiko egunetarako zenbait ideia

Ez.

Ez erabili Ahobizi eta Belarriprest txapak ikasleen artean banatzeko. Ikasleei ekimena proposatu nahi badiezue izena eta irudia, pixka bat bada ere, aldatu. Ikus dadila ikasleei begirako ekimena dela. Adibidez: Eskolako Ahogozoak, Ikastetxeko hiztunak edo dena delakoa. Herriko helduen ekimena eta ikasleena ez nahastea komeni da. Lotuta egitea ondo dago, baina arriskua dugu haurren ekimen moduan ikusteko eta hori baino askoz gehiago da Euskaraldia.

Ez proposatu besterik gabe Ahobizi edo Belarriprest izan nahi ote duten. Hobe beste figura bat sortzea eta ikasleen ezaugarrietara egokitzea.

Bai.

Bai. Ekimena moldatu. Izen berri bat jarri eta 11 egun horietan egin. Erronka edo zeregina ere moldatu. Hainbat modutara egin daiteke:

- 11 egun horietan zehar euskara gehiago erabiltzeko ahalegina egin behar dute (horrek ez du esan nahi denbora osoan egin behar dutenik, ahalegindu behar dutela soilik). Egunero tarte batean baloratu egingo da ahalegindu diren.
- Guztiei (edo prest daudenei) 11 egunetan euskara gehiago erabiltzeko proposatzea baino, egun bakoitzetarako erronka zehatz bat proposa dakieke: gaur patioa, gaur pasiloa, gaur jantokia... Ez du esan nahi beste tarteetan ez dutenik ahalegindu behar, baina bereziki momentu horietara ekarriko da ahalegin kontzientea, beraientzat lortzea errazagoa izan dadin.

Bai. Ekimen hau jokaeretan kokatzen da batez ere. Ez hartu kontuan zer gertatzen den Euskaraldiaren ondoren. Baliatu egun horiek beraiek gehiago erabiltzeko ahalegina egitera eta irakasleak horri errefortzu positiboak ematera.

Bai. Irakasleek Hezitzaile Berritsu oso aktiboak izan beharko dute Euskaraldian zehar. Pasiloetatik eta patioan asko ibili, elkarriketa askotan parte hartu... Euskara asko erabiltzen lagundu behar zaie, proposatutako ariketak betetzen eta, irakasleak horrela badabilta, askoz errazagoa izango da errefortzu positiboak ematea edota ahalegin txikiak eskatzea beraiekin balorazioak egiten direnean.



“Kontzientzia, zentzua eta transzendentzia da niretzat adimen espirituala eta horiek lantzeko bitartekoa, barne isiltasuna”

ELKARRIZKETA:

TXEMI

SANTAMARIA

PSIKOLOGOA ETA DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

Txemi Santamariak adimen espiritualari buruzko tesia bukatu berri du eta defentsa egitear da. Bilboko Otxarkoaga heziketa zentroan egin du ikerketa eta han esperimantutakoak bildu ditu tesian. Meditazioa, erlaxazioa, arreta, isiltasuna eta beste hainbat tresna jarri dituzte praktikan irakasleek eta ikasleek adimen espirituala lantzeko. Erljioan sartu gabe, adimen espiritualak kontzientzia, zentzua eta transzendentzia barnebiltzen dituela

dio eta horiek lantzeko bitartekoa barne isiltasuna dela azpimarratzen du. Teologia ikasketak egin da Santamaria eta Deustuko Unibertsitatean eskolak ematen ditu. Horrez gain, bikote eta familia psikologoa da eta Bilboko Lagungo familia terapia zentroan egiten du lan. Lanbide bietan ikasitakoa eta tesian ikertutakoa bilduta, gaur egungo gizartean adimen espirituala lantzeko ireki diren aukera berriak jarri ditu mahai gainean.



Adimen espiritualak oinarri duen tesia aurkeztar zaude. Zuk nola definituko zenuke adimen espiritualak?

Niretzat adimen espiritualak hiru arlo jorratzen ditu edo hiru arlo desberdinetara eraman daiteke. Hasteko, geure bizitza kontzientzia gehiagorekin bizitzeko tresnak ematen dizkigu. Kontzientzia da Psikologian mende honetako hitzik garrantzitsuenetako bat.

Bigarren arloa zentzua izango litzateke. Adimen espiritualak geure bizitza zentzu sakonagoarekin bizitzeko aukera ematen digu. Honetaz Victor Frankl-ek asko berba egin zuen eta hark komentatu eta aipatu zuen gizakiarengan badagoela *sentitzeko borondatea*. Hori topatu behar dugu eguneroko bizitzan; alegia, zentzua bilatu behar diogu geure eguneroko bizitzan egiten dugunari.

Eta hirugarren arloan transzendentzia eta horren irekitasuna egongo lirateke. Hau da, transzendentzia ez da erlijio tradizio zehatz batekin lotu behar, baizik eta modu zabala goan ulertu behar da.

Hiru arlo horiek lantzeko, oso garrantzitsua da isiltasunaren esperientzia. Edo barne isiltasuna. Norma-

lean geletan edo geure bizitzetan isiltzen gara, baina geure buruan hainbat zarata dago. Eta gizakiak noizbehinka isiltasuna behar du hiru arlo horiek jorratzeko.

Gaur egungo gizartean ez zaio lekurik egiten isiltasunari. Are gehiago, isiltasunak enbarazu egiten du, nahiz eta behar dugun.

Hori da postmodernitatearen ezau-garri bat. Zygmunt Bauman postmodernitatearen soziologoa izan da eta gizarte likido batean bizi garela dio. Eta neurri batean egia dela esango nuke. Hainbat estimuluz josita gaude eta geure arreta beti dago kanpoan, hainbat estimulutan: eskuko telefonoaren bidez beti gaude konektatuta, beti daukagu informazio berria... Psikologo batzuek *infoxikatura* gaudela diote. Eta nik uste dut oso adierazgarria dela hitza.

Baina geure bizitzari zentzua bilatzeko, barne isiltasuna izateko, gelditu egin behar dugu. Eta hori, edo gizartean egiten dugu eta gure bereziak sortzen ditugu hori egiteko, edo posible da pertsonak edo ikasleak ez egitea bere kabuz. Horregatik, uste dut behar dela momentu batean hori eskainiko duten guneak

sortzea.

Apropos sortu behar dira, gizarte honetan berez sortzen ez direlako.

Hori da. Nik beti adibide bera ipintzen dut. Ni txikitik bidaia batera baldin banindoan nire gurasoekin autoan, leihotik begira joaten nintzen, ezer egin barik. Aspertu egiten nintzen eta ikasi egiten nuen asperitzen. Gaur egun, gidatzen noanean atzera begiratzen dut, eta nire hiru seme-alabak bata tabletarekin, beste mugikorrarekin... ikusten ditut. Orduan, arreta horretan daukate.

Estimulu berriak dauzkagunean, gure burmuinak hormona bat sortzen du: dopamina. Orduan, zer gertatu zaigu gizarte honetan? Gure burmuinak denbora osoan informazio berria jasotzera ohitu dira. Hori gertatzen ez denean, gure burmuinak informazio gehiago eskatzen digu. Orduan, ni heltzen naiz metrora, bi minutu geratzen dira hurrengo metroa etortzeko, eta telefono mugikorra ateratzen dut. Ez dut ezer bidali behar, ez diot inori deitu behar, baina ateratzen dut eta informazio gehiago jasotzen dut.

Hori kudeatu egin behar dugu. Geure burua hor egotera ohitu behar

dugu, zaratarik gabe, estimulu berririk gabe... Egongo dira beste momentu batzuk informazio gehiago jasotzeko, zarata gehiago izateko..., baina noizbehinka gelditu egin behar dugu, isiltasunean egon, eta geure esperientziaz ohartu. Arreta barrurantz eraman behar dugu, isiltasunean egon eta ohartu eta konektatu esperientziarekin. Bestela, zein da arriskua? Baumanek dioen kultura likidoaren pean bizitzea. Eta orduan dena oso superfiziala, oso likidoa izango da.

Nola iritsi geltokian itxaroten egon eta telefonoa ez hartzera? Gaur egungo estimuluen bonbardaketaren ondorioz, erabaki erabat kontzientea izan behar du telefonoa ez ateratzea. Nola iritsi puntu horretara?

Ez da erraza, baina prozesu bat da. Gu astiro-astiro hasten gara hori gelan lantzen. Eta ikasleak ohartzen dira ondo datorkiela noizbehinka gelditzea eta isiltasunean egotea.

Saioetan beti agertzen da teknologia berrien kontua eta telefono mugikorren erabilpena. Adibidez, gu momentu honetan app bat garatzen ari gara *mindfulness* edo arreta osoa eskuko telefonoaren bidez lantzeko. Paradoxikoa da, agian, baina app horren barruan tresna bat sartzen dugu telefonoa zenbat denbora erabiltzen duten neurtzeko. Lehenengo urratsa telefonoa zenbat ordu erabiltzen duten ohartzea izango da. Eta bestetik, baita ere ohartzea noizbehinka ondo datorkiela isiltasunean egotea. Eta prozesu horretan, astiro-astiro badoaz urrats txikiak ematen. Urrats txikiak diot, inguruko presioa edo eragina handia delako. Askok erabiltzen dute eskuko telefonoa, noski, baina pixka bat murrizten hasten dira.

Gure leloa honako hau da: ‘nik erakutsiko dizut zuri ondo datorkizula isiltasunean egotea. Gero zuk erabakiko duzu noiz eta non’. Gizakiok erritualak behar ditugu geure bizitzako gauzak ondo kudeatzeko, orduan, sistematizatzen baldin badugu meditazio eta erlaxazio praktika, eragina izango du.

Horregatik, guk beti proposatzen diegu ikasleei goizeko lehen mo-

mentuan edo eguna amaitu baino lehen, bi minutu hartu eta arnasketa kontzienteak egiteko. Edo azterketa baino lehen, urduritasuna kudeatzeko. Guk prozesu horretan laguntzen diegu, gero beraiek erabaki dezaten noiz eta non egin.

Ez da erraza, baina urratsez urrats goaz.

Adimen espirituala esanda erlijioa etortzen zaigu burura. Baina ez da gauza bera.

Orain dela hamarkada gutxi arte adimen espirituala eta erlijioa lotuta zeuden. Bazirudien adimen espirituala garatzeko bide bakarra tradizio edo erlijio zehatz bat zela. Eta orain arte haiek izan dira ondare espiritualaren arduradunak. Orain, ohartu gara posible dela gizakiaren arlo transzendentala lantzea tradizio erlijioso batean egon gabe. Posible da. Erlijioaren bidez posible da, baina ez da bide bakarra. Arlo horretatik, oso urrats polita izan dela uste dut, aukerak zabaltzen direlako. Erlijio-tradizio guztietan arlo espiritualak sartuta dago, baina adimen espiritualak erlijioa baino zabalagoa da. Orduan, horrek erlijiosoak ez diren pertsonak ere arlo hori garatzeko aukera ematen du.

Nire ustez, pertsonen dimentsio bat da. Aurreko urteetan egon diren tradizio filosofiko batzuek esaten zuten gizakiarengan ez zegoela arlo espiritualik. Momentu honetan ikertzaile gehienek ikuspegi humanista batetik badagoela diote. Eta arlo horrek zerekin dauka lotura? Zentzuarekin, transzendentziarekin eta kontzientziarekin, lehen aipatu ditudan hiru arlo horiekin.

Orduan, nik uste dut berri ona dela. Gainera, badaude ikerketa batzuk non pertsonaren ongizatearen eta arlo espiritualaren artean korrelazioa dagoela agertzen duten. Eta nik uste dut hor aukera gehiago zabaltzen direla. Adibidez, horrelako proposamenekin eskola publikoetara joateko aukera ematen digu. Eta nik uste dut lagungarria dela.

Nola lur hartzen du eskola laiko batean adimen espiritualaren lanketak?

Esan bezala, adimen espiritualak

“Psikologo batzuek *infoxikatuta* gaudela diote, informazio gehiegi jasotzen dugula. Horren aurrean, geure bizitzari zentzua bilatzeko, barne isiltasuna izateko, gelditu egin behar dugu. Eta hori, edo gizartean egiten dugu eta gune bereziak sortzen ditugu hori egiteko, edo posible da pertsonak eta ikasleak ez egitea euren kabuz”

“Adimen espiritualak dimentsio antropologikoa da, ez teologikoa. Horregatik, posible da adimen espiritualaren bitartez, erlijioan sartu gabe, arlo transzendentala lantzea. Ondorioz, aukera berriak sortu dira”



erlijioa baino zabalagoa da. Gainera, 1996ko Delors-en *Hezkuntzaren zutabeak* txostenean agertzen da zein den mende honetan hezkuntzak daukan erronka eta Heziberri 2020n ere agertzen da. Delors-en txostenak dio lau paradigma egon direla eskolan. Lehenengoa, *ikastea zen*. Hori dela-eta, ikastetxeetan kontzeptuak ikasten ziren. Bigarren paradigma *ikasten ikasi*, eta aldi honetan gaitasunen bidez lan egiten zen irakaskuntzan. Hirugarren urratsa *elkarbizitzen ikasi* izan zen, eta bakea lantzeko eta arazoak konpontzeko egitarauak garatu ziren. Azkenik, laugarren urratsa, *izaten ikasi* izan da. Hau da hezkuntza integralaren proposamena. Eta *izaten ikasi* horren barruan, nire iritziz, adimen espirituala ere badago. Horregatik, uste dut oso aukera interesgarria zabaltzen dela eskola publikoan, adibidez, meditazioa eta erlaxazioa lantzeko. Hor ez dago ez jainkorik ez praktika erlijiosorik.

Puntu honetara iritsi gara, ikuspegi zabal horretara. Baina urte batzuetan, laikotasunaren izenean, adimen espirituala landu gabe geratu da, oro har, gizartean. Hutsune bat egon da, gizakiaren kalterako. Hutsune hori betetzen hasiak al gaude?

Nik uste dut baietz. Hori da programa hauek egiten duten ekarpena. Berreskuratu egin da, nire ustez antropologikoa den dimentsio bat. Adimen espirituala dimentsio antropologikoa baita, ez teologikoa. Gizakiengan oinarritzen da.

Howard Gardnerrek, askotariko adimenen teoriaren aitak ere aipatu zuen. Gardnerren ustez zortzi adimen mota daude, eta horiez gain adimen existentziala dago. Oso argi ez zeukanez, berak esan zuen zortzi adimen eta erdi zeudela. Gerora autoren gehiagok landu dute, Francesc Torralba kataluniarrak, adibidez. Eta arlo antropologikoan adimen espirituala badagoela diote. Horrek oso aukera ona zabaltzen du.

Azken finean, adimen espirituala lantzeko, beste alternatiba edo tresnak badaudela ikusarazi duzue, alegia, ez dela erlijioa mugatu behar. Hala da. Gainera, nire iritziz, erlijioa ikastetxe barruan era murriztean landu da. Ikuspegi teorikotik jorratu da, teorikoegi eta dogmatikoegi, nire ustez. Erlijioa esperientzia bat den heinean, askoz ere esperientzialagoa izan beharko luke. Autobehaketa gaitasuna, emozioen gaitasuna, barne isiltasuna, ikuspegi kontenplatioa izaten jakitea... posible da hori dena erlijioen sinesmenak edo jainkoak ukitu gabe lantzea. Niri hori oso garrantzitsua iruditzen zait. Gainera, tresna horiek, aipatu dudan ikuspegi teorikoa eta dogmatikoa alde batera utzi eta kontenplaziozko begiradarekin lantzeko aukera ematen dute.

Kontenplaziozko begirada. Beste elementu bat gehiago sartu duzu.

Bai, gauzak ikusteko edo lantzeko bi begirada desberdin daude: kontenplaziozkoa eta analitikoa. Begirada analitikoa metodologia zientifikoan erabiltzen dena da; hau da, errealitate bat hartu eta zatitu egiten da aztertzeko. Adibidez, olerki bat hartu eta zatitu egiten dugu ikuspegi kritiko batetik aztertzeko. Kontenplaziozko begiradaren helburua, aldiz, ez da aztertu ahal izateko zatitzea, baizik eta osoki ikustea eta gozatztea. Adibidez, mendi tontor batera igoko banintz, biologo gisa begirada analitikoa edukiko nuke, agian dauden zuhaitz motak edo animaliak aztertuko nituzte. Kontenplaziozko begiradarekin, aldiz, tontorrera igotakoan paisaia begiratu, arnasa hartu eta airea sentituko nuke. Begirada biak dira osagarriak. Nire tesiak dio eskolan asko jorratu dugula begirada analitikoa eta oso gutxitan landu dugula kontenplaziozko begirada. Horregatik, kontenplaziozko begirada landu behar dugu eta nik uste dut ikastetxeetan landu daitekeela adimen espiritualaren barnean.

Tesira bueltatuz, zer da zehazki landu duzuna?

Adimen espirituala jorratzen duen programa batek ikasle eta irakas-

leengan zer eragin duen ikusi edo neurtu nahi izan dut. Izan ere, adimen espirituala lantzeak, pertso-naren beste arlo batzuetan eragina eta onura duela frogatu nahi nuen. Eta noski, pertsona baten ongizatea hobetzen baldin badugu, horrek eragina dauka pertsonen arteko harremanetan eta giroan.

Aurretik Luis Lopez Gonzalezekin (*REMIND-Relajación, Meditación y Mindfulness* Masterraren zuzendaria da Bartzelonako Unibertsitatean) barnekotasuna lantzeko Treva programa garatu nuen eta tesian programa hori egokitu egin dut adimen espirituala lantzeko. Horretarako, hainbat alderdi landu ditugu: konpetentzia emozionala, estres maila, antsietate maila, erlaxazio gaitasuna eta gelako giroa.

Urte asko daramatzat programa horrekin eta formazioa eman izan dut hainbat lekutan eta ikastetxetan. Hasieran Kataluniako ikastetxeetan eta duela 6-7 urtetik hona Euskal Herrikoetan, besteak beste Somorrostroko heziketa zentroan, San Juan ikastetxean, Bilboko Nuestra Señora del Pilar ikastetxean...

Baina tesia egiteko Bilboko Otxarkoaga heziketa zentroan oinarritu naiz eta han egindako esperientzia sistematikoa eta zientifikoa izan da. Oso garrantzitsua da ikuspegi zientifikoa ematea horrelako lanei.

Zein urrats jarraitu dituzu ikerketa egiteko?

Ikerketak urrats desberdinak izan ditu. Lehen urratsa esan dudan Treva programa egokitzea izan da. Bigarren urratsa egokitutako programa eta planteamenduarekin proposamen bat egitea irakasleei eta haiekin lantzea. Hau da, irakasleei formazioa ematea, gero haiek ikasleekin lantzeko. Ezinbestekoa zen irakasleek proposamena barneratzea gero ikasleekin lantzeko. Eta ez ikuspuntu teoriko batetik, baizik eta esperientziazetik. Eta hirugarren urratsa proposamena geletara eramatea eta irakasleek ikasleekin lantzea izan zen, betiere nire laguntzarekin. Azkenik, dena neurtu dugu. Ikerketa kuasi-esperimental izan da eta erabili dugun metodo-

logia kuantitatiboa eta kualitatiboa izan da.

Zer gauza hartu dituzu kontuan Treva programa adimen espiritualera egokitzeko?

Batez ere, ikuspegi psikopedagogiko batetik, irizpide nagusiak *mindfulness* eta *focusing* izan dira. *Mindfulness*-ek arreta osoa esan nahi du. Eta *focusing*-ek gorputza entzuteko gaitasuna; hau da, gorputza entzuten baldin badugu, geure bizitza kudeatzeko hainbat azterna topatzen ditugula dio.

Azken finean, geure helburua zen ikasleei eta irakasleei tresnak ematea beren esperientzia entzuteko eta konektatzeko. Izan ere, zeure esperientziarekin konektatuta baldin bazaude, kontzientzia handiagoarekin bizitzeko aukera handiagoa izango duzu. Eta era funtzionalago batean kudeatuko dituzu zeure bizitzako arloak.

Horiek izan dira landutako arlo nagusiak eta biak lotuta daude. Erabiltzen diren jarrerak antzekoak dira bietan eta autobehaketa gaitasun horiek bietan jorratzen dira.

Arlo bi horiek lantzeko Treva programak bederatzi baliabide psiko-fisiko edo psiko-korporal ditu eta horiek banan-banan landu ditugu: arreta, arnasketa, erlaxazioa, irudikatzea, postura edo jarrera kontzientzia, mugimendua, ahotsa, gorputz energia eta zentzumen kontzientzia.

Guk normalean metafora bat erabiltzen dugu. Baliabide horiek entsalada baten osagaiak direla esaten dugu. Orduan, zer egiten dugu formazioan? Banan-banan dastatu osagai horiek. Osagai horiek integratzen baldin baditugu, gero geletara joan gaitezke eta nork bere entsalada prestatu nahi dituen osagaiak nahastuz. Eta hortik ariketa eta praktika desberdinak sortzen dira arreta osoa eta *focusing* (gorputz ikuspegiaren teknika) aurrera eramateko.

Osagai guztiak maila berean jartzen dituzue ala bada baten bate besteak baino garrantzitsuagoa?

Horien artetik osagai nagusia arreta

“Treva programak bederatzi baliabide psiko-fisiko lantzen ditu: arreta, arnasketa, erlaxazioa, irudikatzea, postura edo jarrera kontzientea, mugimendua, ahotsa, gorputz energia eta zentzumen kontzientzia. Baliabide horiek entsalada baten osagaiak direla esaten dugu. Osagaiak ezagututa, nork bere entsalada egin dezake”

“Guretzat ezinbestekoa da irakaskuntzan arreta osoa jorratzea arreta ezinbesteko funtzioa delako irakaskuntzan. Arretarik ez baldin badago, ez dago pertzepziorik; eta pertzepziorik ez baldin badago, ez dago ikaskuntzarik. Orduan, guk ikasleei tresnak eman behar dizkiegu arreta lantzeko”



osoa da. Guretzat oinarrizkoa da hezkuntzan edo irakaskuntzan arreta jorratzea, arreta irakaskuntzan ezinbesteko funtzioa delako. Arretarik ez baldin badago, ez dago pertzepziorik; eta pertzepziorik ez baldin badago, ez dago ikaskuntzarik. Orduan, guk ikasleei tresnak eman behar dizkiegu arreta entrentatzeko, ondo kudeatu dezaten. Gure gizartean hainbat estilumuz inguraturuta gaude, eta normalean ikasleek garatzen duten arreta oso dispertsoa da. Arreta leku batetik bestera doa. Psikologoek *buruko zapping-a* deitzen diote. Geure burua telebista baten urrutiko agintea balitz bezalakoa da: gauza batetik bestera doa saltoka. Baina irakaskuntza gauzatzeko ikasleek fokalizazio gaitasuna behar dute.

Galdera da nork kudeatzen duen nor. Neure arretak kudeatzen nau ala neuk kudeatzen dut neure arreta? Umeei eta gazteei tresnak eman nahi dizkiegu beraien arreta kudeatzeko eta gero fokalizatu ahal izateko.

Behin hori diseinatuta, irakasleak prestatu zenituzten. Zer-nolako formazioa eman zenuten?

Irakasleen formazioan arlo esperientziala azpimarratu genuen. Irizpide

teorikoak edozein liburutan ager daitezke, eta badaude, gainera, gai honen inguruko irizpide teorikoak. Baina guk praktikoa egin nahi genuen, irakasleen esperientzian oinarritua eta ez teorian. Irakasleei isiltasunean egoteko, nork bere burua entzuteko, eta gero, esperientzia horri izena ipintzeko esparru bat eskaini nahi genien. Horregatik, formazio saioak esperientzialak izan ziren. Normalean irakasleak mahai baten inguruan arlo edo kontu operatiboak jorratzeko elkartzen dira. Baina oso gutxitan elkartzen dira haien bizipenak kontatzeko, entzuteko eta partekatzeke. Eta lantalde batean bizipenak partekatzen direnean, giroa erabat desberdina izan ohi da. Beraz, irakasleentzat gelditzeko eta autobehaketa gaitasun horiek lantzeko aukera bat izan zen, eta baita taldea egiteko ere.

Oso esperientzia polita izan zen irakasleentzat. Eskertu egin zuten isilik egoteko abagunea, autobehaketa proposamena aurrera eramateko eta lankideekin partekatzeke gune bat zabaltzea.

Hurrengo urratsa proposamena ikasleekin lantzea izan zen. Nola antolatzen zenuten?

Hasteko, guk uste dugu irakasleek eraman behar dutela proposamena gelara, ez kanpoko norbaitek, hori dela erabakigarriena. Hortaz, guk ariketa eta praktika desberdinak garatu genituen eta irakasleen formazioan egin eta landu genituen, irakasleek ziurtasuna izateko. Eta ondoren, haiek eraman zituzten geletara.

Bi arlo nagusi landu genituen ikasleekin: bata gelako ohiturak, eta bestea gaitasunak edo konpetentziak. Erritualei edo gelako ohiturei dagokienez, 2-3 minutuko praktika oso laburrak dira. Egunaren hasieran eta amaieran egiten genituen, eta gero, segun eta nola zeuden ikasleak, eguneko beste momentu batzuetan ere sar zitezkeen beste praktika batzuk. Adibidez, atsedendialdiaren ondoren ikasleak aztoratuta bueltatzen zirela ikusten baldin bagenuen, praktika bat egin zitezkeen egoera lasaitzeko eta bere onera etortzeko. Praktika horiek oso laburrak dira, gero eskolak ematen jarraitu behar delako.

Beste aldetik, gaitasunak edo konpetentziak jorratzea aipatu dut. Tutoretza orduak erabili genituen horretarako. Horrela, denbora gehiagorekin jorratzen genituen

praktikak. Esate baterako, ikasi zuten zelan egin arnasketa kontzientea, zelan egiten den arnasketa diafragmatikoa eta abar.

Otxarkoaga heziketa zentroko ikasleak 12-16 urtekoak dira. Propio hautatu al zenuen adin tarte hori proposamena lantzeko?

Ez. Kasualitatea izan zen. Edo hobeto esanda, hainbat faktore egon ziren eta nik aprobetxatu egin nituen. Baina guk adin txikiagoetatik hastea proposatzen dugu. Treva programan Haur Hezkuntzatik hasteko prestatuta dugu proposamen bat. Horrelako gaitasunak eta lan proposamenak txikitatik Batxilergoa edo Lanbide Zikloak amaitu arte lantzen baldin baditugu, sistematizatu egiten dugu eta zeharkakotasuna ematen diogu lan proposamenari.

Zer-nolako harrera izan zuen gazteen aldetik?

Oro har, oso esperientzia polita izan zen. Hasieran proposamena oso ezezaguna egin zitzaion, ez baita horrelako ekintzarik egiten gela-tan. Eta beti sortzen dira galderak: ‘Zertarako egiten dugu hau? Nik zergatik egin behar dut hau?’ eta horrelakoak. Baina programa honen mamia ez da kontu teoriko bat, baizik eta esperientzuala. Orduan, berehala ohartu ziren ikasleak ona zela haientzat. Oso praktika xumeak ziren, hasieran laburrak, eta astiro-astiro joan ziren sartzen. Hasieran oso harrিতa zeuden, baina gero, kasu batzuetan, beraiek eskatzen zuten, ‘noiz egingo dugu meditazioa?’ eta horrelakoak esanez.

Behin ikasleekin proposamena landu ondoren, neurketak etorri ziren. Zer neurtu zenuten?

Aldagai desberdinak neurtu genituen. Alde batetik, aldagai emozionalak: estresa, antsietatea, erlaxatzeko gaitasuna eta gaitasun emozionalak. Eta baita guretzat oso garrantzitsua zen beste aldagai bat ere: ikustea ea programa honen bitartez posible zen gelako giroa hobetzea. Normalean meditazioaren bitartez besteekiko harremana hobetzen dela esaten da. Ez da nor-

bere buruarekiko harremana bakarrik hobetzen, baita besteekikoa ere. Hori aztertu genuen guk.

Eta emaitzak onak izan ziren. Gaitasun emozionaletan eta erlaxazio gaitasunean hobetzen zela erakutsi ziguten neurketek, eta gelako giroa ere hobetu egin zela. Pozik gaude programa honen bitartez ikasleengan aldagai batzuk hobetzen direla ikusita. Teoriak dio ikaslearen ongizatea hobea bada, errendimendua hobea dela. Eta gelako giroa ere bai. Hor ikusten da gizakiaren arlo edo dimentsio soziala. Irakaskuntzan ez baita gauzatzen esperientzia indibiduala, baizik eta esperientzia soziala. Guk geure lagunekin batera ikasten dugu.

Ikastetxeetan bakarrik ari zarete ala familiekin ere lantzen duzue?

Ikastetxe batzuetan familie tailer bat egitea proposatzen diete. Zenbait ikastetxetan aurrera eman dugu hori eta oso esperientzia positiboa izan da. Seme-alabek gelan landu ondoren, haiengan aldaketa ikusten dute eta tailerraren bitartez gurasoek ere ezagutu dute zein den proposamen honen oinarria edo irizpidea. Normalean zazpi saio egiten ditugu gurasoekin.

Gure helburua komunitate osoarekin harremana izatea da. Gehienetan irakasle eta ikasleekin gaude, baina familiekin ere egin daiteke. Gainera, psikologo gisa, nire ikuspegia oso sistemikoa da, familia osoa kontuan hartuta egiten dut lan, komunitateko ikuspuntuarekin. Azken finean, gure helburua edo programarena, hezkuntza humanizatzea da. Programa humanista eta humanizatzailea da. Orduan, ikuspegi horretatik, ikasleekin eta irakasleekin lantzeaz gain, familiekin lantzeak aberastu egiten du. Ikastetxeetatik kanpo jorratzen baldin bada, askoz hobeto, jakina. Guztion ardura da.

Edonola ere, nik esango nuke eskola eta hezkuntza integrala jorratu nahi baldin badugu, eskola barruan egon behar dela adimen espiritual. Bestela, ez da integrala. Beraz, argi eduki behar dugu zer nahi dugun. Integrala izateko, arlo espiritual kontuan hartu behar dugu.

“Normalean irakasleak mahai baten inguruan arlo edo kontu operatiboak jorratzeko elkartzen dira. Baina oso gutxitan elkartzen dira haien bizipenak kontatzeko, entzuteko eta partekatzeko. Eta lantalde batean bizipenak partekatzen direnean, giroa erabat desberdina izan ohi da”

“Eskolan kontenplaziozko begirada landu behar dugu adimen espiritualaren barruan”

Programaren helburua hezkuntza humanizatzea dela aipatu duzu. Hezkuntza humanizatze beharra al dago?

Bai, nik uste dut baietz. Nik uste dut badagoela arrisku bat: darabagun erritmoa. Erritmoak oso arinak direnean, harremanak ez dira ondo zaintzen. Eta momentu honetan irakasleek burokrasia asko egin behar dute, paper asko bete, epe asko daude... eta tresnak behar dituzte pixka bat lasaiago joateko, kontzientzia gehiago izateko gela-tan eta harremanak ere zaintzeko.

Badaude pertsonen arteko harremanak zaintzeko tresnak, eta programa honek horiek eskaintzen dituela uste dugu. Eta ondorioz, humanizatze ere balio dute. Guretzat hori ezinbestekoa da.

ESPERIENTZIAK

MEXIKOKO KALNEMAXTILOYAN ESKOLA

Autogestioa, hizkuntza propioa eta magia

Mexikoko Puebla estatuan igaro ditut hiru aste emankor, Cuetzalan herrian, hain zuzen ere.

Garabidek eta Emunek sustatuta, Tosepan izeneko kooperatiba-taldeko nahualt hiztunekin aritu gara elkarlanean. Euren kooperatibetan hizkuntza-planak martxan jartzeko lankidetzan aritu gara. Baina, horrez gain, Kalnemaxtiloyan eskola ezagutzeko parada ere izan dut. Baina, eskolarekin hasi aurretik, testuingurua apur bat zehaztea gura izango nuke.

Tosepan kooperatiba-taldeak 41 urte bete berri ditu. 440tik gora tokiko kooperatiba txiki ditu taldeak, eta 36.000 familia bazkide inguru guztira (180.000 pertsona, gutxi gorabehera). Kooperatiba produktibo txiki horiez gain, taldeak baditu beste zerbitzu batzuk ematen dituzten kooperatibak: osasun-zerbitzuak, aurrezki- eta kreditu-zerbitzuak, etxebizitza-zerbitzuak, formazio-zerbitzuak, prospektiba-zerbitzuak, turismo ekologikoko zerbitzuak, komunikazio-zerbitzuak, emakumeentzako zerbitzuak... eta, zelan ez, eskola bat, Haur Hezkuntza, Lehen eta Bigarren Zikloko ikasketekin (1-12 urte bitarteko umeentzat).

Ekonomia sozial eta solidarioa da Tosepan, ezer izatekotan. Komunitatea da hemen gunea, komunitatea da enborra, eta, gero, enbor horretatik hainbat adar ateratzen dira: agroekologia, arbasoen jakintzak, jateko

ohitura osasuntsuak, ama lurraren defentsa, metodologia pedagogiko berrituak eta errealitatera egokituak, autonomia, etxebizitza iraunkorra, identitatearen gorazarrea, energia- eta elikadura-burujabetzak eta, azkenaldian, gero eta gehiago, hizkuntza propioaren harrotasuna (baita erabile-ra ere).

Kooperatiba ia integrala da Tosepan, autonomia eta determinazio askearen ardatzen inguruan eraikia, autoeraketa duena bide eta ipar. Euren helburua da burujabetzarako ahalik eta esparru eta gune gehien (berr)eskuratzea: elikadura, energia, segurtasuna, ekonomia, lurraldea, hizkuntza eta, jakina, hezkuntza. Hori lortzeko, hortaz, Tosepanek komunitatea antolatu gura du, horiek guztiak (berr)eskuratzeko.

Eta zurrunbilo horren guztiaren erdian arraun egiten du Kalnemaxtiloyan eskolak. 2006ko urriaren 2an ireki zuten eskola. Egun horretan, 1968an, Mexikoko poliziak ikasleen matxinada baten kontrako sarraskia egin zuten, 200etik gora gorpu utziz. Egun horretan ireki zen eskola eta, zelanbait, ikasle-mugimenduarekiko gertutasuna erakutsi zuten keinu horrekin.

Eta zergatik sortu zuten eskola? Tosepanek behin eta berriro aipatzen dute Mexikoko eskola oso txarra dela. Eta, gainera, eskolara sartutakoan, umeek galdu egiten dute komunitatearekiko harremana: beste



TXERRA RODRIGUEZ

Hizkuntza-aholkularia

modu batera jaten dute, beste modu batera pentsatzen, beste modu batera hitz egiten, beste modu batera janzen dira. Horri aurre egiteko sortu zuten eskola, euren jakintzen arabera hezi eta irakasteko.

Horretarako, hasi, Montessori pedagogiarekin hasi ziren. Japoniako lagun baten bidez izan zuten haren berri, baina berehala ohartu ziren pedagogia horrek norbanakoari garrantzi gehiegi ematen diola, eta eurek gurago dute komunitatea indartzea. Gainera, sasoi hartan Arizmendi ikastolako proiektua ezagutu zuten, eta inspirazio-iturri handia izan zen hori haien metodologia pedagogikoarentzat. Beraz, eurek esaten dute Montessori egokitu bat darabil-tela, euren errealitateari eta egiteko moduei egokitutako Montessori bat, hain zuzen ere. Une honetan euren metodologia jasotzen, sistematizatzen eta batzen ari dira, eta, hortik abiatuta, etorkizunerako aldaketak, moldaketak eta doitzeak aplikatzen hasi nahi dute.

Izan ere, Kalnemaxtiloyan eskolak Mexikoko hezkuntza-sistematik kanpo kokatzen du bere burua. Eskola-liburuxka badute hango ikasleek, baina ez du laguntzarik jasotzen estatutik, eta ez dio Mexikoko eskoletan derri-gorrezkoa den curriculumari kasu egiten. Hango jakintzetan oinarritutako

heziketa-sistema jarri dute martxan (edo, agian, zehatzago esanda, ari dira martxan jartzen, prozesua amaitu barik dago eta). Azken finean, eskolarekin (bai eta beste proiektuekin ere) autonomia bilatzen dute, erabakimena euren eskuetan izatea eta eurentzat egindako hezkuntza-proiektua aurrera eramatea. Beste berba batzuekin esanda, eurek eurentzako egindako eskola, euren buruen gainean ikasi eta irakasteko. Hori da azken helburua, baina, jakina, oraindik hastapenetan daude, eta ez dute lortu helburua erabat gauzatzea.

Eskola, gainera, doakoa da, mugimendu kooperatiboak dituen irabaziekin ordaintzen dira eskolako gastuak (irakasleen soldatak, materialak...). Beraz, umeak eskolara eraman ahal izateko, nahitaezkoa da gurasoak mugimendu kooperatiboko kide izatea.

Zelakoa da, bada, eskola?

Kanpo aldean, ortuak dituzte, oiloak, erlategiak, kafe-landareak... Olgetarako, berriz, egurrezko txinboak eta saskibaloirako eta futbolerako balio duen zelaia.

Eraikinak, berriz, banbuz egindakoak dira (hangoen etxe tradizionalak ere horrelakoak dira). Eraikinak energetikoki iraunkorrak dira, energia gutxi kontsumitzeko diseinatuta

Eta zergatik sortu zuten eskola? Eskolara sartutakoan, umeek galdu egiten dute komunitatearekiko harremana: beste era batera jaten dute, beste modu batera pentsatzen, beste modu batera hitz egiten... Horri aurre egiteko sortu zuten eskola, euren jakintzen arabera hezi eta irakasteko.

daude. Orain, gainera, eguzki-panelak jartzen ari dira, erabateko burujabetza energetikoa eskuratzeko.

Eskola barruan, berriz, ez dago hormarik. Umeek egurrezko mahaiak eta aulkiak dituzte, eta ez da plastikoa inon ikusten. Gosaria eskolan bertan egiten dute egunero, eta itzelezko



ESPERIENTZIAK: MEXIKOKO KALNEMAXTILOYAN ESKOLA

garrantzia du jan-ereduak. Hango elikadura-ohiturak erabiltzen dituzte eskolan, garaian garaiko eta tokiko produktuak bakarrik kontsumituz.

Umeak eta irakasleak jantzi tradizio-nalekin jantzita joaten dira eskolara. Zuri kolorea aldean ibiltzen dira hara eta hona, eta sandaliak eramaten dituzte oinetan.

Eta zer ikasten dute, bada?

Egunero, haur guztiek (irakurtzen eta idazten jakin orduko) ortua lantzen dute, han hasten dute eskola-eguna. Hortaz, bakoitzak badu bere esperimentuak ortuan egiteko betarik. Testulibururik ez dute erabiltzen, baina dagoeneko badituzte 800 orrialdetik gorako ikasmaterialak: inguruko landareak, animaliak, kankak, erritualak, dantzak...

Proiektuka antolatzen da irakas-kuntza osoa. Ikasurtea amaitutakoan, ikasle bakoitzak proiektu bat egin behar du. Adinak gora egin ahala, proiektu hori korapilatu egiten da eta konplexuago bihurtzen da, baina guzti-guztiek dute proiektu hori aurrera eramateko betebeharra.

Gurasoek ere hartzen dute parte eskolan. Egunero, familia batek egiten du jatekoa, txandaka, eta umeei zerbitzatu egiten diete eta txikienei laguntzen diete (koskortu ahala, ume horiek mahaia jartzen eta jasotzen hasten dira, baita garbiketak egiten ere).

Baina eskola ez da bakarrik lau hormen artean gertatzen dena: komunitatea ere eskola da. Komunitatera joaten dira umeak, ipuinak jasotzen dituzte, erritualak, dantzak, elezaharrak, landareen eta animalien izenak... Ikasurte honetan, adibidez, inguruko herrietako toponimia (handia eta txikia) batzen aritu dira eskolako umeak, euren amama eta aitaitei galdetzen.

Hala ere, komunitateetara ez eze, kooperatibetara ere joaten dira. Astean behin, gelak utzi eta taldeko kooperatiba batera egiten dute txangoa. Han ematen dute eskola-eguna, kooperatibako kideen ondoan, eta haiek egiten dutenetik ikasten dute. Gainera, koskorrenen kooperatibagintza ikasgai derrigorrezkoa dute eta, horrez gain, ekologismoa, bakezaletasuna eta horren tankerakoak ere izaten

dituzte ikasgai.

Mugimendu kooperatiboko eskola da. Hortaz, zentzuzkoa denez, umeek ere batzarrak egiten dituzte egunero. Batzar horietan, eskolaren egunerokoari lotutako gaiak lantzen dituzte, eta, jakina, eurei eskatutako erantzukizuna adinaren arabera handitzen doa.

Ostegunak egun bereziak izaten dira eskolan. Egun hori baliatzen dute ikasleek egiten dutena komunitateari erakusteko. Hori dela eta, ostegunetan hainbat ekintza egiten dituzte. Esate baterako, gu han egon ginen bitartean, sokazko kometak haiztzen ibili ziren. Gainera, ostegunetan merkatua egiten dute, eta trukatu edo saldu egiten dituzte eurek geletan landutako bitxiak edo jakiak.

Hizkuntza-eredua

Hasieratik, eskolak nauat hizkuntzaren aldeko hautua egin du. Hala ere, hasieran ez zuten murgiltze-ereduaren alde egin, nahiz eta hizkuntzak presentzia izan. Dentsitate minimo bat eman diote hasieratik hizkuntzari, eta gainditu nahi izan dute Mexikon ko-



munitate indigena batzuetan dagoen hezkuntza elebiduna.

Orain dela urte batzuetatik, eta Euskal Herritik iritsitako eraginagatik hein handi batean, murgiltze-eredu moduko bat ari dira esperimentatzen. Haur-eskolan, behinik behin, hizkuntza nagusia nauata da. Nauat hizkuntzan ikasten dute irakurtzen eta idazten.

Lehen eta Bigarren Hezkuntzan ere ari dira murgiltze-eredura hurreratzen, baina, maila hauetan, zailtasunak handixeagoak dira. Alde batetik, maila horietan dauden irakasle batzuek ez dute gaitasun nahikorik eskolak nauat hizkuntzan eman ahal izateko. Beste alde batetik, irakasgai gehienetan nauat hizkuntzan erabiltzeko moduko materiala falta zaie. Eta, azkenik, irakasgai batzuetan, terminologia teknikoak zelan eman eztabaidatzen ari dira oraindik orain.

Hortaz, pausoak ematen ari dira, borondatea badago. Gainera, orain hizkuntza biziberritzeko plana jarri dute martxan irakasleen artean, eta horrek ere eragina izango du ikasleengan. Horrez gain, etengabe ari dira ikasmateriala egiten eta taxutzen, eta horrek ere luzera begira oinarri sendoa ekar dezake. Irakasleak eta eskolako zuzendariak oso motibatuta daude prozesu honekin, eta horrek, berandu baino lehen, badirudi emaitzak izango dituela.

Hala ere, ezin da ahaztu eskolak oraindik korapilo batzuk askatu behar dituela hizkuntza-ereduari dagozkionez. Batetik, irakasleak trebatu beharko ditu, ikasmaterialak egiten jarraitu, metodologian eta pedagogian murgiltzera eraman. Bestetik, gero eta haur gutxiago heltzen ei da hizkuntza jakiten. Transmisioa higatzen ari da, umeak dira gutxien dakitenak eta, antza, mordoiloen berba egiten dutenak. Eta hori gertatzen ari da mugimenduko kideen seme-alaben artean. Hirugarrenik, haur horiek gaur egungo mundu-ikuskeraren barruan sozializatzen ari dira: telebista, musika, informazio-teknologiak... Horretan ere eragin beharko du eskolak, nahiz eta jakin eragin horiek txikiak izango direla. Eta, azkenik, gurasoen konplizitatea eta erabakimena lantzen jarraitu beharko dute.



Gurasoek hautu kontzientea egin dute (Mexikoko hezkuntza-sistematik kanpo dago eskola, ez ahaztu), gurasoek erabaki dute euren seme-alabek beste hezkuntza mota bati oratzea. Baina zer gertatuko da lehen eta bigarren mailan benetako murgiltze-eredua martxan jartzen bada? Hori, nire ustez, ikuskizun dago.

Azken berbak

Zerotik hasitako eskola-eredua da, ikusi ahal izan duzunez, Kalnemaxtiloyan eskolakoa. Ari dira apurka-apurka euren egitekoak, euren helburuak eta euren metodo propioak probatzen eta esperimentatzen. Zailtasunak handiak dira: ekonomikoak, materialari dagozkionak, irakasleen prestakuntzari dagozkionak, curriculum berri eta ezberdin bat egiteari dagozkionak... Hala ere, mugimenduak eta irakasleek horiek guztiak gainditzeko borondatea badute.

Eta, batzuetan, borondate horrek eragin biderkatzailea du. Magia egiten ari dira Cuetzalan aldean, benetako magia. Eta, horretarako, kimika behar dute, borondatea, elkarlana, indarra. Bilatzen ari diren hori ezin da azaldu arlo "teknikotik" soilik, bilatzen ari diren horrek bihotzarekin eta sentimenduekin ere zerikusia du.

Euskal Herritik iritsitako eraginagatik hein handi batean, murgiltze-eredu moduko bat ari dira esperimentatzen. Haur-eskolan, behinik behin, hizkuntza nagusia nauata da. Nauat hizkuntzan ikasten dute irakurtzen eta idazten. Lehen eta Bigarren Hezkuntzan ere ari dira murgiltze-eredura hurreratzen, baina, maila hauetan, zailtasunak handixeagoak dira.

EKARPENAK

ORUE ESKOLA

Psikomotrizitatea haurraren garapen integralerako ingurune seguru eta babesle

Psikomotrizitate integratzailean jarduten duen Orue Eskolako kideek idatzi dute artikulu hau, psikomotritateak haurraren garapen osasuntsu baterako ingurune seguru sortzerako orduan nola laguntzen duen azaltzeko. Euren esanetan, pertsona seguru sentitzen da bere ingurunea kontrolatu behar ez duenean eta den bezala azal daitekeenean.



Jakina da segurtasun afektiboa dela pertsonaren garapen integralaren oinarria (garapen fisikoa, afektiboa, kognitiboa eta soziala), eta ingurune seguru eta babesleen bidez soilik sor daitekeela segurtasun hori. Pertsonak, seguru eta salbu sentitzen denean, ikasteko, lan egiteko, erlazionatzeko, lasaitzeko... gaitasuna gara dezake; hau da, mundura zabaltzeko eta ingurunea eraldatzeko gaitasuna garatuko du. Ingurune horietan, garunaren gaitasun primarioenak biziraupenerako

arriskurik ez dagoela hautematen dute, eta garunak garapen integrala susta dezake egoera horretan.

Ingurune seguru eta babeslea zer den ulertzeko, argi eduki behar dugu *segurtasun* eta *kontrol* kontzeptuen arteko desberdintasuna. Ingurune horrek ez du bere hezkuntza-proiektua jokaera-eredu batean oinarritzen. Ez du helburu jokaera kontrolatzea; izan ere, pertsona ez da ziur sentitzen zer egin ahal duen eta non kontrolatu behar duenean. Pertsona seguru sentitzen da bere ingurunea kontro-

latu behar ez duenean eta den bezala azal daitekeenean. Hezkuntzan esku hartzeko modua zeharo aldatzen du horrek, arretagunea haurraren jokabidean jarri beharrean helduon ekin-tzen kontzientziazioan jartzen baitu.

Beste alde batetik, helduok, pertsona autonomoak garen heinean eta erabakiak hartzeko gaitasuna dugunez, ingurune seguru hori bilatu, sor edo susta dezakegu. Haurrek, aldiz, ez. Haurrek bizikidetzako eta hezkuntzako espazioetan ingurune hori berma diezaieketen helduen

beharra daukate. Beraz, helduon erantzukizuna da haurrentzat ingurune seguru eta babeslea sortzea.

Horrelako inguruneak bermatzeko orduan, psikomotrizitateak duen balioaren indarra berretsi nahi dugu, ematen duen segurtasun-esparruaren bidez aipatutakoa betetzen baitu.

Psikomotrizitate gela, ingurune fisiko legez, haurraren segurtasun fisikoa bermatzen duen espazio bat da. Haurrak ez du ingurunea mehatxu bezala hautematen, eta den bezala azal daiteke.

Hori lortzeko, ezinbestekoa da helduon aurretiazko lana, eta, helduez ari garenean, ez gara ari psikomotrizistaz soilik; hezkuntza-talde osoa hartzen dugu aintzakotzat. Aurretiazko lana, espazioaren dimentsioa, arriskutsuak diren egoeretatik babestea (lur irristakorra, erorikoak...), psikomotrizitateko materialen garbitasuna, sarbide egokitua... eta horrelako baldintzak kontuan hartzea da. Horiek zaintzen ez badira, helduok haurraren jokaera neurtzen egongo gara beti, haren segurtasun fisikoa ez mintzeko, eta kontrolerako ingurune bat sortuko dugu. Beraz, helduon eta gure ardurapean dauden haurren beharrezko erantzukizuna eraike behar dugu.

Segurtasun fisiko hori lortuz gero, segurtasun emozionalera helduko gara. Psikomotrizitate gela haurra onartua sentitzen den espazio pribilegiatua eta paregabea da. Desiratzen den toki bat da, ez gelan aurkitzen duenagatik (espazioa, materialak...), gela horretan izan daitekeenagatik eta egin dezakeenagatik baizik, han bizi eta sentitzen duenagatik; gainera, haurrak bere ekintzetan plazerrezko ispilua eskaintzen dion heldu baten sostengua dauka, haurrari gelan bere lekua ematen diona.

Denborarekin eta espazioarekin lotutako baliabideek ere (espazioen egonkortasuna, objektuen ordena, ohiturak sortzen dituzten ekintzen errepikapena, arau argiak...), segurtasun afektiboa bermatzen duten loturak sortzen laguntzen dute.

Bestalde, pertsonekin lan egiten dugunok ondo dakigu hezitzaile taldeak haurrei afektua adierazteko gaitasuna izan behar duela, haien emozio eta zentzumenetara egokituz.



Beraz, afektiboa izatea ez da aukera bat, erantzukizun bat baizik.

Psikomotrizitateko prestakuntzan, bada nahitaezko alderdi bat, gaitasun hori lantzen duena, psikomotrizistok *egokitzapen toniko-emozionala* deritzoguna. Gaitasun hori prestakuntza pertsonalaren bitartez lantzen da, eta helduaren afektibitatearen kontzientziazioa du xede. Bizipen-saio horiek norberaren gorputzetik abiatzen dira, norberaren ezagutza landuz; gero, praktikan landuko dira, geure arazoa dena eta umearena dena desberdintzeko.

Haurraren begirada desberdina izaten laguntzen digu horrek, eta haurraren jokabidea haren ondoezaren sintoma moduan ulertuko dugu, ez probokazio pertsonal moduan. Era berean, erabat aldatzen du helduaren esku-hartzea; izan ere, haurraren ikuspuntura egokitzea ahalbidetzen du, haren beharrezko erantzukizunetik abiatuta, eta ez guretatik.

Psikomotrizitatean, haurra da bere ikaskuntzaren protagonista. Haurrari bere burua babesteko, autonomiarako eta erresilientziarako tresnak ahalbidetzen dizkio horrek, eta herritartasun aktiborako ezinbesteko tresnak

dira horiek. Jolasa haren desiratik hasten da, bakoitzaren erritmoak eta beharrezko erantzukizunak errespetatuz.

Gainera haurraren sinesten dugu, izaki original eta paregabea den aldetik, kontuan hartuta berak bakarrik izan daitekeen izaki biziduna izatera heltzeko behar dituen gaitasunak hasieratik dituela. Sinesmen horrek erabat aldatzen digu haurra ikusteko modua, eta merezi duen protagonismoa ahalbidetzen dio.

Ondorio bezala, psikomotrizitateko segurtasun-esparruak (gela, espazioarekin eta denborarekin lotutako baliabideak, materialak, heldua...) ingurune seguru eta babesle bat sortzen du; haurraren segurtasun afektiboa bermatzen du horrek, eta haren garapen integrala sustatzen. Baina, gure ustez, kontzientziazio-prozesu hori erakundearen maila guztietan garatu behar da, ez zuzeneko arreta ematen duten hezitzaileengan soilik. Hau da, ingurune seguru eta babesle bilakatu behar du eskolak, bai haurraren, bai hezitzaileen segurtasun afektiboa bermatzeko; izan ere, zaintzen gaituztela sentitzen dugunean ikasten dugu zaintzen.

GALDEIDAZU

ZENBATEKO GARRANTZIA DUTE BIZITZAKO LEHEN URTEEK?

Gizakiaren ibilbidean lehen urteek duten garrantzia azken aldi honetan sarritan aipatzen den arren, esango nuke oso hausnarketa gutxi egiten dela gai honen inguruan. Horregatik da eskertzekoa Hik Hasik ematen digun gogoetarako aukera.

Lehen urte horien garrantzia aitortzeko orduan guztiok ados gaudelakoan, harira datozen bi gai jorratu nahi nituzke, biak ere elkarrekin txirikordatuz:

- Nire ustez kritikagarriak diren ideia eta jarrera batzuk.
- Garai hauetako lan profesionala. Aipa ditzadan, beraz, kritikagarriak iruditzen zaizkidan hainbat jarrera eta uste.

1. Errespetu falta, 0-3 adin-tartearen inguruan

- Haurrenganako errespetu falta. Protagonista nagusiak haurrak dira, kontrakoa badirudi ere, baina ez da haien *ahotsik* entzuten ia, beste askoren ahotsak ozen asko entzuten diren arren: zaintza partekatua dela, kontziliazioa, gurasotasun-baimen bateragarri berriak, genero-ikuspegia, homo-gurasotasuna, mono-gurasotasuna, gurasotasun-kidetza, gizartearen beharrak etab. Haur txikiak beti hizpide, baina helduen ahotsak, kezak eta eskubideak baino ez plazan (gutziz legitimoak, noski).



XABIER TAPIA

Psikologo klinikoa



- Profesionalenganako errespetu gutxi.

Ugariak dira 0-3 adin-tarte horretako profesionalenganako paternalismoak, topikoak eta ñoñokeria-kutsuko aipamenak: andereñoak zer jatorrak diren, zelako pazientzia duten, haien lana zein polita den, zenbait maite dituzten haurrek, zelako meritua duten...

Baina, meritu pertsonalaz harago, ez da haien **profesionaltasuna** ez aipatzen, ez aintzat hartzen ia, haien lanak, dohain pertsonalaz gain, beste inolako gaitasun profesionalik edo prestakuntzarik eskatuko ez balu bezala. Meritu profesional handirik ez, beraz, eta are gutxiago kategoria profesionala. Ez dira gutxi halatsu pentsatzen duten *goragoko* lankideak ere, hezkuntza barrukoak, alegia.

- Gurasoenganako errespetu falta. Gurasoei dagokienez, uste dut paternalismo, txutxumutxukeria eta batez ere gutxiespen eta kritika gehiegi dagoela, eta, ez jakintzat ez ezik, erruduntzat ere jotzen dira: “Noski, halako amarekin zer nahi dun bada!”

Hainbat soziologoren iritziz, gero eta ugariagoak dira gurasoenganako **kontrol sozialaren** beharraz mintzatzaren diren sektore politiko eta profesionalak: gurasotasuna *ondo* betetzen dutenei **laguntza-politika** bat eskaintzea litzateke, alde batetik, helburua, eta, bestetik, guraso-erantzukizunak betetzen *ez dituztenekin kontrol-*

politika bat ezartzea, eta, behar izanez gero, berreziketa-programak aplikatzea eta erantzukizun-kontratuak sinaraztea (etorriko dira horrelakoak ere). Esan beharrik ez dago, sektore ideologiko horien iritziz, bi taldeak maila sozio-ekonomikoaren arabera osatzen direla, salbuespenak salbuespen.

Baina ez dugu oso urrutira joan beharrik; gure artean ere gurasoez dagoen iritzia eta pertzepzioa nahikoa kritikoa eta gutxieslea da, gupidak jarrera horiek apur bat leundu arren.

Nahiz eta hainbat gurasok sarritan profesionalekin modu gogaikarrian eta umeeekin ez oso egoki jokatu, ez dut uste gehiegi hartzen denik kontuan ez haien testuingurua eta ez haien egoera zehatza: haien sentipen intimoak, beldurrak, erruduntasunak, zalan-tzak, ulertuak izateko beharra, lan eta familia egoera zailak... Oso ohikoak dira horrelakoak, eta aintzat hartzeko modukoak.

2. Ezjakintasuna

Errespetu falta deigarria bada ere, zer esan 0-3 adin tarte honi buruz dagoen ezjakintasunaz?

Handia da, oro har, haurraren garapenari eta adin horretako lan profesionalari buruzko ezjakintasuna, eta ulergarria ere bai, neurri batean behintzat. Hala ere, profesionalen lanari buruz gizarteak duen ezjakintasuna mingarria izan badaiteke ere, are mingarriagoa da hezkuntzako hainbat profesionalak azaltzen dutena.

Prestakuntzan, azken 40-50 urte hauetan egin diren ikerketak eta argitaratu diren liburuak kontaezinak izan arren, guztiz da urria horien presentzia hainbat prestakuntza mailatan, ia nabari ezina.

Ezjakintasunak, ordea, ez dauka zertan arazo izan; ezjakintasuna, jakin-minari bidea emateko bada, ezaupide berrien akuilu ere bilaka daiteke; ezjakintasunaren arazoa esaera zaharrek diotenaren bidetik dator: "Gutxi ikasia, beti jakintsu", edo "dena jakitun ustezko ez-jakin hutsak!" 0-3 adin-tarteko lanari buruz esaten diren itxurarik gabeko iritziak, deigarriak izateaz gain, auzo-lotsarako motibo ere izaten dira, lanbideko kideen aho-

tik entzuten direnean batez ere.

3. Inolako funts zientifikorik gabeko hainbat 'ideologia', gaur egun kalte handia egiten ari direnak

• 'Aditukeria'

Adituen ustezko *gehiagotasunean* sinetsita, adituei ematen zaien lehentasunaz eta protagonismoaz ari naiz, haurren hezitzaileen zeregin bakarria adituon esanetara egote hutsa balitz bezala. *Aditukeria* horrek badu albo-kalte larri bat ordea: profesionalen eta gurasoen gutxiespena, deskalifikazioa; nabarmena eta agerikoa batzuetan, inplizitua eta disimuluzkoa gehienetan. Denbora falta aitzakia hartuta adituen ustezko nagusitasuna onartzen denean, nahasketa larri bat egiten da: esan dezadan labur, nahasi egiten baitira guztiz desberdinak diren bi dimentsio edo maila:

- Ezagueraren maila
- Bizitzaren maila

Ezagueraren mailan, adituek, jakin, gehiago jakin dezaketenez, ezinbestekoa da haien ekarpena. Bizitzan, ordea, gurasoek dute lehentasuna, eta baita profesionalak ere. Ez da aukera kontua; eguneroko bizitzan, gurasoak zein profesionalak dira haurren harremanetako kide afektibo, pribilegiatu eta protagonista nagusiak, eta ez adituak.

Beraz, haurren lehentasuna onartzekotan, adituen zeregin nagusia aipatutako protagonistei ondotik laguntzea eta haien zerbitzura ere egotea da, eta ez alderantziz.

Adi, beraz, *aditukeriaren* ideologia horrekin, haurren harremanetako kiderik garrantzitsuenak gutxiestera eta deskalifikatzen eraman gaitzakeelako, eta, batzuetan, baita **haiek gutxiestera ere**.

• 'Berehalakokeria'

Emaitzak epe laburrean eta berehala lortu beharraz ari gara, **haurrek haur izateko duten eskubidea bera guztiz zapuzteraino**. Ideologia horrek presaren alarmak, presioak eta (hiper) estimulazioak pizten ditu, eta haurren erritmo biologikoak zein psikologikoak apurtzen, ume izateari baino **ikasle** izateari garrantzi handiagoa ematen baitzaio. Ustez txinatarrak den

Ezagueraren mailan, adituek, jakin, gehiago jakin dezaketenez, ezinbestekoa da haien ekarpena. Bizitzan, ordea, gurasoek dute lehentasuna, eta baita profesionalak ere. Ez da aukera kontua: eguneroko bizitzan, gurasoak zein profesionalak dira haurren harremanetako kide afektibo, pribilegiatu eta protagonista nagusiak, eta ez adituak.

esaera zahar bat datorkit burura: landare gaztea ez dela azkarrago hazten dio, hostoei tira eta tira egitegatik, eta, aldiz, ikusten ez diren sustraiak zaintzea dela kontua.

Geroxeago garatuko ditut ideologia horren nondik norako batzuk.

• 'Errentagarrikeria'

Ageriko emaitzen lehentasunari deitzen diot *errentagarrikeria*: ageriko errendimenduaren eta emaitzen lehentasuna, **barruko prozesu sakonen** kaltetan. Emaitzen zaleek hobeto ulertze aldera, hauxe esan dezaket: ageriko portaerak eta azturak baino, azpiko prozesu afektiboak zein kognitiboak dira garrantzitsuenak, zaindu beharrekoak; mimoz, profesionaltasun zorrotzez eta behar besteko denboraz garatu behar dira, erritmo desberdinak errespetatuz, landare gaztearen ezkutuko sustraiak bezalaxe. Pikler-Loczy zaleek badute honetaz guztiaz guri zer irakatsi.

4. Presa eta presio-giroa

Leku askotatik sor daiteke presio-giro hori, baina faktore batzuk aipatuko ditut:

- Oraintxe aipatutako ideologiak horiek
- Demografia
- Geroko eskolagintzan gehiegi zentratzea
- Geroaren beldurra

GALDEIDAZU: BIZITZAKO LEHEN URTEEN GARRANTZIA

Haurrek, hau da, ikasleek, ikas dezatela azkar, ondo, ahal den gehiena eta geroko probetxuzkoa: oraina geroaren morroi, trebakuntza goiztiarraren ideologia, haur txikien erritmo biologikoak zein psikologikoak hankapean harrapatzen dituen. Erabat umetzen ari den gizarte hau bera da haurrak haur baino heldu nahiago dituen. Biolentzia pedagogiko-komertzial honekin kontrakoa ari dela lortzen jakingo balu!

Konfiantzarik gabe, ilusiorik gabe, desordenarik gabe, abenturarik gabe eta tranpolin-jauzirik gabe, ez dago etorkizuna norberaren barrutik sortzerik.

• Hainbat ideologia
Ez dut lehen esandakoa errepikatuko.

• Demografia
Bi datu baino ez:

1. Europako ugalkortasun-indizea oso baxua bada (1,5), are baxuagoa Euskal Herrikoa (1,3).
2. Europan lehen amatasun-adina, batez beste, 30 urte ingurukoa da, eta Euskal Herrikoa, berriz, 33,4koa (40 urtetik gora lehen aldiz ama diren asko daude).

Haurrak horren gutxi eta *berandu* izatearen ondorio nagusietako bat haurrei buruz dugun irudi sozialaren aldaketa da:

- Haurrak oso preziatu bihurtu dira.
- Era berean, ez zaie merke ateratzen ari horren preziatuak izatea.

Izan ere, itxaropenak aldatzen ari dira: handiak bezain negoziak ezinak dira, lehenbailehen bete beharrekoak,

alegia; ondo eta azkar hazi behar dira, ondo eta azkar ikasi behar dute, hizketan eta irakurtzen ondo eta azkar ikasi behar dute, eta idazten, autonomo izaten, pentsatzen... gauza bera; denetarik jan behar dute, eta ondo lo egin, igeri egin... Haur preziatuak bai, baina haur perfektu goiztiarrak diren neurrian. Haurrekin diharduten profesionalak badute, inork baino hobeto, gizartearen presio horren berri.

- Geroko eskolagintzan gehiegi zentratzea orainaren kaltetan
Hauxe esan daiteke labur-labur: geroko eskolagintzak (6 urtetik aurrerakoak, legearen arabera) zilegitasun osoa du bere helburu, metodo eta identitate pedagogikoak burutzeko, noski; ez, ordea, bere mentalitatearen garroak 0-3 adin-tarte horretara luzatzeko, aro hori bere zerbitzura jarri nahian. Lehen, nahikoa inbaditu zuen, zoritxarrez, eskolaurrea edo 3-6 etapa, eta, orain, 0-3koa ere inbaditzen ari da.

0-3 adin-tarteak bere identitatea du, 6tik aurrerakoarekin ia zerikusirik ez duena; izan ere, lehen adineko haurren ezaugarriak oso desberdinak dira. Baina haur guztiak tropel berekoak balira bezala hartzen dira: ikasleen tropelekoak, alegia, bai 6 urteko umeak, eta baita 6 hilabetekoak ere! “Dena da hezkuntza, dena **eskola**” ideologia, haur-**eskolarena**, **eskolaurrearena**, lehenbaileheneko azturena eta ohiturena, (hiper)estimulazioarena, ikasketa goiztiarrena, aurre-ikasketena (aurre-irakurketarena, aurre-idazketarena), lehenbaileheneko autonomiarena... Trebakuntza goiztiarraren enbor ideologikoaren ezpalak dira denak, haur txikien erritmo biologikoak zein psikologikoak hankapean harrapatzen dituztenak.

Haurrek, hau da, ikasleek, **ikas** dezatela azkar, ondo, ahal den gehiena eta geroko probetxuzkoa: oraina geroaren morroi. Erabat umetzen ari den gizarte hau bera da haurrak haur baino **heldu** nahiago dituen. Biolentzia pedagogiko-komertzial honekin kontrakoa ari dela lortzen jakingo balu!

- Geroaren beldurra
Gurasoengan, geroaren beldurra da nagusi, larritasuna eragiten die horrek:

- Etorkizuna ilun ikusten da, zaila da, lehiakorra, ziurtasunik gabekoa.

- Mamuak ezagunak dira: langabezia, droga, alkohola, eskolaporrota.

Eskolan ere, ez da falta prebentzio-programarik; denetarik eta noiz-nahi: bakea, toxikomania, *bullying*-a, sexualitatea, sexismoa, elikadura, trafikoa, arrazakeria, ingurumena, kontsumoa...!! Haurrengan konfiantza zipitzik ez dagoen seinale da hainbeste prebenitu behar izatea.

Eta, konfiantzarik gabe, ilusiorik gabe, desordenarik gabe, abenturarik gabe eta tranpolin-jauzirik gabe, ez dago etorkizuna norberaren barrutik sortzerik.

Presaren eta presioaren kalte psikopatologikoak ez ditut aipatuko, oso larriak izan badaitezke ere.

0-3 aroko jardueraren oinarrizko helburuak, haurren humanizatzeko prozesuan

Aipatu baino ez ditut egingo:

1. Haurrak **seguru** sentitzea, profesionalen eta haurren arteko konfiantza eta jarraitutasuna direla medio.
2. Haurrak **harremanetan** ondo kokatzea eta sentitzea, bai beren buruarekin eta bai besteekin.
3. Bere burua zaintzea, **menpekotasunetik autonomiarako** bide luzean abiatzea.
4. **Mundura zabaltzea**: haurrak munduaren kuxkuxero jostalari bihurtzea, “ikasle” ludiko (gorputza, motrizitate askea, zentzumenak, jolas-giroa...), “ikasketak” ondorio izan daitezen, eta ez helburu.
5. **Sozializatzea**: inguruneko hizkuntzak, kodeak, sinboloak, balioak bereganatzea (kultura, natura, artistak, artisauak, pailazoak, idazleak, poetak, pintoreak, musikariak, ipuin-kontalariak, eskulturagileak, etab.).

Humanizatzeko prozesu horretan, honako ardatz hauek hartu behar lirateke kontuan:

1. Harremanak
2. Gorputza
3. Gurasoak
4. Prestakuntza
5. Profesionalen lanaren aintzatespena

Azken bi horiek garatuko ditut, labur bada ere.

Prestakuntza.

Profesionalen erronka ez da asmatzea, zertan ari diren jakitea baizik, zuzen ala oker, baina egiten ari direnaren jakitun izatea.

Galdera nagusia ez da “zer egin behar da?” galdera, “zertan ari gara?” baizik. Lehen galderak ageriko jokabidearekin du zerikusia; bigarrenak, aldiz, jokabidearen **zentzuarekin**; eta gogoratu beharra dago haur txikiak, gure portaeren begirale baino, gure portaeren zentzuaren zelatari eta atzemaile erneak ditugula, gure portaerarenak baino areago.

Eta, egiten dugunaren zentzua bilatzean, prestakuntza izango dugu bidelagunik leialena.

Prestakuntzak duintzen eta janzten gaitu, plazan beldurrak uxatzen laguntzen digu, eta, besteen aurrean uzkur eta lotsati azaldu ordez, tente eta gure lanaz eta geure buruaz profesionalki harro sentitzen laguntzen digu. Prestakuntzak egiten gaitu geure lanaren aktore eta sortzaile, eta ez besteen esaneko otzan eta zintzo. Prestakuntzak laguntzen digu nortasun profesionala marrazten, mamitzen, besteengandik bereizten eta edonori, profesionalki behinik behin, parez pare eta aurrez aurre begiratzen.

Askotxok uste du, ordea, haur txikiak lan egiteko ez dela prestakuntza handirik behar, baita lanbideko kide askok ere: “Azken finean, jaten emateko, pixoihalak aldatzeko eta kontu batzuk esateko, ez dago asko jakin beharrik!”

Nire ustez, ordea, 0-3 urte bitarteko lana, **sakonik bada, horixe da sakonena, konplexuena, aberatsena, erabakigarriena, sortzaileena, eta, batez ere, intimitatearen inplikazailerik inplikatzailena.**

Eta zeri buruzko prestakuntza izango da? Gaiak nahi beste topa daitezke, baina, bat aipatzekotan, hauxe aukeratu nuke, duen lehentasunagatik eta urgentziagatik: **haurraren garapenari buruzko prestakuntza**, haurraren garapenaren ezaugarriek markatu behar baitute gure jardun profesionala, eta ez gizartearen beharrek eta neurosiek.

Profesionalen lana aintzat hartzea.

Adin hauetako lanari buruz, lehen ere aipatu dut, gizartearen betetzen duen zerbitzua guztiz onartua bada ere, eskatzen duen profesionaltasuna ez dela ia aintzat hartzen, edo, hartzekotan, zelofan ederrez bildutako topiko eta lausenga hutsez josita ageri dela.

Eta honi kanpotik datorkiokeen errekonozimenduaren zain badaude profesionalak, egon daitezela lasai alferrik, trenbiderik gabeko trenaren zain. Ez da etorriko, interes kontzientea eta inkontziente gehiegi baitago egoerak bere horretan jarrai dezan.

Nago, berriro ere, barruko lanak ez ote diren lehenik bete beharrekoak, eta ez naiz ari, noski, lan-baldintza edo aldarrikapen ekonomikoez (horiek ere bai, noski). Profesionaltasunaren aintzatespena etortzekotan, barrutik etorriko da.

Sozialki, bakardade handiko lan iluna deritzot etapa honetan egiten denari: *haur-eskola* terminoa ontzat hartzen badugu, eskolatzat hartzen baditugu 0-3 zentroak, orduan behebeheko sotoko zoko ilunetako lan ikusgaitzaren itxura har dezake lanak; distira gutxikoa behintzat, goi-goi mailetako lan pedagogiko distiratsu eta prestigiodunaren aldean.

Ildo beretik, lanaren errekonozimendu faltak arriskuak lekartzake: bakardade-sentipena, etsipena, ilusio falta, aldarte txarrak, lana errutina bihurtzea, nekea, lanpostua hobetzeko aukera faltak ekarritako dezepzioa, prestakuntzarako gogo falta eta zentzurik eza, lanaren fruitua gerokoek jasoko duten kontzientzia...

Ez diot beti hala denik, baina horretatik ere badagoela uste dut, lotsa klandestinoaren isil-gordean sarritan.

Irtenbide bakarra barrura begirako gogoetan eta hausnarketan ikusten dut, bakarkakoan zein taldean: lan honek eskatzen dituen konplexutasunaren, aberastasunaren eta erantzukizunaren tamaina plazaratuko bada, argudioak eskuratu behar dira, bakarka eta taldean; aukeran, taldean nahiago, taldea, banakakoen bilgarri psikiko sendo eta babesleku ezin hobea izateaz gainera, eraginkorragoa ere izan daitekeelako plazan: elkarrekin bildu, elkarren lana ezagutu, elkarrekin eztabaidatu, elkarrekin gainbegiratu, elkarrekin

Profesionalen erronka ez da asmatzea, zertan ari diren jakitea baizik, zuzen ala oker, baina egiten ari direnaren jakitun izatea. Galdera nagusia ez da “zer egin behar da?” galdera, “zertan ari gara?” baizik. Eta egiten dugunaren zentzua bilatzean, prestakuntza izango dugu bidelagunik leialena. Prestakuntzak duintzen eta janzten gaitu, plazan beldurrak uxatzen laguntzen digu, eta besteen aurrean uzkur eta lotsati azaldu ordez, tente eta gure lanaz eta geure buruaz profesionalki harro sentitzen laguntzen digu.

ikasi, elkarrekin idatzi, elkarrekin izan profesional.

Identitate profesional propioa eta besteengandik desberdina berreskuratzea behar da, eta etengabe berriztatzea, badago eta zer joratu eta zer gozatu; besterik ez bada, beste inork bere hatzaparrak sar ez dezan.

Haur txikiez hitz egitera gonbidatu, eta profesionalak izan ditut batez ere hizpide. Profesionaltasunaren zale izanik, profesioa eta profesionalak nabarmendu nahi izan ditut, besteengandik hain desberdin egiten dituzten ezaugarriak, konplexutasunak eta aberastasunak azpimarratu asmoz.

Lanbide honek **nortasun** berezia du, desberdina, eta, hala denez, prestakuntza desberdina, zientifikoa, sakona eta zorrotza, hau da, berariazko prestakuntza, exijitzen du, propioa, baina baita guk besteak, errespetu osoz, zintzoki eta etikaz aintzat hartzea ere.

izena emateko eta
informazio gehiagorako
Zientzia Azoka elhuyar.eus

Zientzia Azoka

elhuyar da

business
ikerketak!

Euskal Herriko kartzale
gasteak 18-18 urte
proiektuak abiatzeko
Izen-ematearen irakiera

2018-2019

Ikertzale
profesionalen
laguntasun eta
aholkuekin

IZEN-
EMATEA
Irailaren 24tik
urrerara
**ANIMA
ZAITEZ!**

Zientzia Azoka Bilbon, 2018ko maiatzean

ANTOLATZAILERAK




erabiltzaileak



ELABORATZETAN



ARGITALPENAK



COSIMOREN KATIUSKAK
Dani Martirena/ Ana Ibañez

PAMIELA


Cosimok zuhaitz batean eraiki du etxola, eta hortik inguruari erreparatzen dio. Egileek Italo Calvinoren *II barone rampante* liburu ezagunaren erreferentzia erabili eta gaurkotu dute eta Cosimo haurrari baliabide berriak eman dizkiote gizartean kokatuz; edertasunaren aldarrikapena zabaldu dute. Liburuak XII. Etxepare Saria jaso du.



IZENA DUENA DA
Izaskun Etxebarria

UTRIUSQUE VASCONIAE

Liburu honetan adimen gaitasun handikoak dira hizpide. Gai honen inguruko legedia, ikerkuntza, proposamenak eta arlo desberdinen ezaugarriak jaso ditu egileak. Urteetako ezagutza eta esperientzien bidez, gaitasun handikoentzat, hezitzaileentzat, familientzat eta ikertzaileentzat baliagarri izatea du helburu.



KOKUIOAK
Askoren artean

PAMIELA

Joseba Sarrionandiak zuzendutako *Kokuioak* aldizkaria argitaratu berri du Pamiela argitaletxeak. Zenbaki bakarra izango da paperean eta ondoren sarean bakarrik argitaratuko dute. Argitalpenaren heren bat Kubara bidaliko dute eta bestea, Euskal Herrian zabaltzeko asmoa dute. Dagoeneko aldizkaria dendetara iritsi da.



IHES
Jasone Osoro / Joseba Larretxe

ELKAR

12 urtetik gorako gaztetxoei zuzendutako liburua da honakoa. Beireri ihes egitea beste erremediorik ez zaio geratu, eta Martin eta Balarekin egin du ihes. Beyoncek ospitalean dagoen bere lagunaren hutsunea sentitzen du, eta Kar egokitzen ari da etxeko egoera berrira. Herriko jaietan askatuko dira, azkenik, guztien kanpo eta barne korapiloak, berriro ere lagunartera etorriz.



MUZAREN LOALDIA
Zemanel

IKAS

Muza mutiko ttipiak loaldi bat egin nahi du. Begiak kasik hetsiak dituelarik, hainbat animalia banan-banan helduko zaizkio. Eta ezin pausa! Baina Muza abila da eta kasik denak uxatzeko manera aurkituko du. Loari eta arrabotsari buruzko ipuina. Ikas Pedagogia Zerbitzuak argitaratu du eta Jean-Louis Davant euskaltzaina izan da liburuaren itzultzailea.



UTOPIA 68/18
Askoren artean

JAKIN

Egungo utopiak nola irudikatzen ditugun ulertzeko joan den uztailean Usurbilen egindako jardunaldian eztabaidatutakoa dakar orain osatuta *Jakin* aldizkariaren zenbaki bikoitzak. Utopiaren inguruan jositako bederatzitik artikulu eta elkarrizketek osatzen dute lana eta egileen hitzetan “gure burua nahiz etorkizuna pentsatzeko ditugun moldeen isla dira utopiak”.


PROPOSAMENA

Soinu laborategia

Aupa Quartet sokazko laukotearen eskutik

Aupa Quartet sokazko laukote klasikoak batere klasikoa ez den ikuskizun bat prestatu du 6-12 urteko gaztetxoentzat. Musika mota desberdinak nahastuz ikuskizun alai, erakargarria eta parte-hartzailea osatu du. Gaztetxoak dantzan, txaloka, txistuka edo erritmoa markatuz jartzen dituen ikuskizun bizia.

Aretoaren goialdeko ikusleen artetik behera dator gazte itxurako heldu bat, kaskoak belarrietan, musika entzunez eta erdi dantzatuz, eta maletatxo bat zintzilik. Agertokira iritsi eta maleta irekitzen hasi da. Beste bat sartu da agertokiaren eskuinaldetik, patinete gainean. Buelta pare bat eman, patinetea aparkatu eta hura ere maletatxoa irekitzen hasi da. Hirugarrena ikusleen artetik atera da, mugikorra-ekin jolastuz. Agertokiaren gainera igo eta maletatxoa irekitzeko utzi du mugikorra. Lehenengoak biolina atera du, bigarrenak biola eta hirugarrenak biolontxelo. Eta jotzen hasi dira.



Erritmo bizian, kutsakorrean; ikusleak mugitzen hasi dira segituan. Eta horrela, bata bestearen atzetik zortzi abesti jo dituzte. Abesti bakoitzarekin artelan baten irudia ikusi da agertokiaren atzealdean. Hori da Aupa Quartek taldeak prestatu duen *Soinu laborategia* ikuskizuna.

6-12 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako ikuskizun honek berri-tzailea, puskatzailea, bizia eta erakargarria izateko osagai guztiak biltzen ditu: ikuskizun parte-hartzailea da, ikusleek perkusioa jotzen dute gorputzarekin, erritmoa eta entonazioa lantzen dituzte, dinamika ugari egiten dituzte, elkarrizketak sortzen dituzte

instrumentuekin eta zuzenean konposatzen dute.

Berritzailea eta puskatzailea da, esate baterako, sokazko instrumentuekin ez direlako musika klasikoa egitera mugatzen. Rock-a, funky-a, jazz-a eta rap-a nahasten dituzte. Asier Suberbiola taldekideak azaltzen digunez, “saxofoiarekin edota gitarrarekin jotzen diren musikak transkribatu eta sokazko instrumentuekin jotzeko moduan jartzen ditugu. Edo bateria, baxua... imitatzen hasten gara eta horrekin gure soinua sortzen dugu”. Horrela, ikusleengana iristea lortzen dute, gazteak dantzan eta mugimenduan jartzen dituzte. “Eta jaso

dezatela guk jaso ez genuen mezu bat: sokazko instrumentuak ez direla musika klasikoa jotzeko bakarrik. Instrumentuak ez dira estilo batera mugatzen. Instrumentuak dira eta horiekin egiten dena norberaren menpe dago. Instrumentu asko dago, musika mota pila bat, eta nahi dena egin daiteke. Hori da adierazi edo transmititu nahi dieguna gazteei: natural ikustea Michael Jacksonen abesti bat biolontxelo batekin jotzea”.

Inprobisatuz parte hartu

Horregatik da ikuskizun bizia eta erakargarria. Dinamika polita sortzen dute ikusleekiko elkarreraginean. Esate baterako, piano bat zabaltzen dute lurrean, alfonbra bat bailitzan, eta gazteak gainetik pasatzen direnean teklak zapalduz, notak entzuten dira. Nota horiekin inprobisatzen hasten da musikarietako bat eta abesti bat sortzen du. “Momentuan sortzen dugu abestia beraiek piano gainean jotako notekin. Horrela, beraiek ere partaide bihurtzen dira, sortu egiten dute eta sortutako hori ikusi”, dio Suberbiolak. Beste abesti batean ikusleen artean ateratako boluntarioei “gomazko txurro” pare bat ematen dizkiete eta musikariak biolinarekin egiten dutena errepikatzen hasten dira txurro horiekin.

“Boluntarioak aukeratzeko ere modu berri bat sortu dugu” azaltzen digu Suberbiolak. “Hasieran pelota bat botatzea pentsatu genuen, eta pelota hartzen zuena boluntario ateratzea. Baina, zer pelota? Futbol-leko baloi bat? Ez, futbola oso ikusia

dago. Pin-poneko bat? Teniseko bat? Saskibaloiko bat? Bada, ez. Zergatik ez barazki batzuk? Eta azkenean hori erabaki genuen. Barazki batzuk botatzen ditugu eta haiek hartzen dituztenak ateratzen dira boluntario. Azken batean, pentsarazi egin nahi diegu. Zeren ikusten dugu korronea oso-oso markatuta dagoela beraientzat; jada badaukate futbola, mugikorra eta musika mota bat. Eta guk musika mota gehiago erakusten dizkiegu”.

Ikuskizuna gertuko sentitzen dute gaztetxoek eta berehala hasten dira dantzan. “Hori lorpen bat da guretzat; hau da, arrotza ez sentitzea”, dio Suberbiolak. “Guk erritmoa jartzen dugu eta gorputza mugitzen dute. Dena hain intelektuala den garai hauetan gorputza mugimenduan jartzea beharrezkoa dela iruditzen zaigu. Burutik gorputzera eta emozioetara pasatzea, alegia. Gazteak informal izan daitezten eta ondo pasa dezaten nahi dugu. Eta baita helduok ere. Helduak izateagatik ez dugu aspergarriak izan behar. Gu helduak gara eta ondo pasatzen dugu musika joz, dantza eginez, antzerkia eginez... Azken batean, arteak aukera hori ematen du eta horregatik da inoiz baino beharrezkoagoa gaur egun artea”.

Inprobisazioa erabiltzen dute hori lortzeko. Abestien hasiera eta bukara finkatuta dauzkate, baina tarteko guztia inprobisatu egiten dute, bai musika eta baita mugimenduak ere. Eta, noski, ateratzen diren boluntarioak beti desberdinak direnez eta desberdin erreakzionatzen dutenez, saio bakoitza desberdin ateratzen da.



Aupa Quartet-en Soinu Laborategia ikuskizuna

Harremanetarako

- Asier Suberbiola
- Tel.: 635 753 344
- E-posta: asiersuberbiola@gmail.com
- Webguneak:

www.asiersuberbiola.com

www.aupaquartet.com

Soinu laborategia ikuskizunaren link-a

- <https://www.youtube.com/watch?v=ikU87tANWv8>



ATZEKO ATETIK



...MANIA IZATETIK MAITEMINTZERA

MERTXE RODRIGUEZ *MARIMOTOTS* PAILAZOA

Txikitako edo gaztetako oroitza-
pen bat idazteko eskatu didate.
Pentsatzen hasi naiz eta hauxe
etorri zait lehenengo burura:
euskaraz amestu nuen eguna.

Nire gurasoak Cacereseakoak dira,
duela 58 urte Lasarte-Oriara etorri
ziren lanera eta bizitzera, eta bertan
jaio ginen anai-arreba guztiok. Es-
kola nazionaletan ikasi genuen. Nire
lehenengo harremana euskararekin
seigarren mailan izan zen, astean bi
orduko ikasgaietan. Irakaslea panel
handi batekin etortzen zen klasera,
bertan bineta batzuk marraztuta, eta
kasete batekin. Kasetea martxan jar-
tzen zuen eta marrazkiei begira testua
buruz ikasi behar genuen. Oraindik
gogoratzen dut:

- Ama, atea.
- Ireki ezazu ba. Nor da?
- Bi emakume dira.
- Egunon Izaskun.
- Ene, zuek al zarete?..."

Horrelakoa izan zen nire lehenengo
harremana euskararekin, ikasgaia
bezala eta buruz ikasi behar. Eus-
karari mania hartu nion! Eskolatik
institutura joan nintzen, eta han bi
gelak gaztelaniaz ikasten genuen eta
hirugarrenak euskaraz. Lehenengo la-
gun euskaldunak bertan egin nituen,

ikasgaia batzuetan elkartu egiten
gintuztelako.

Hamabost-hamasei urterekin Usur-
bilgo festetara joan nintzen. Mutil ba-
tek euskaraz hitz egin zidan. Ez nion
ezer ulertu, eta nire lagunak erantzun
behar izan zion. Lotsatu egin nintzen!
Aste berean, Oriara joan eta gauza
bera gertatu zitzaidan; zerbait galdetu
eta ez nintzen erantzuteko gai izan.
Berrito lotsatu nintzen. Nire buruak
orduan klik moduko bat egin zuen:
erabakitze momentua zen. Euska-
raz hitz egiteko gaitasunik ez izateak
lotsa eta inbidia sortzen zidan.

Garai horretan lagun batzuk Londre-
sera joaten ziren ingeleza ikastera, eta
nik barnetegira joatea erabaki nuen.
Errigoiti herrira joan nintzen, Gernika
ondoko herri txiki batera. Lehenengo
egunak ez ziren oso errazak izan. Ge-
hienek bizkaitarrez hitz egiten zuten
eta ni *giputxia* nintzen, eta euskara
maila nahiko baxua nuen, gaine-
ra... Ikasle baten lehenengo galdera
hauxe izan zen: "Zelan?" Nire kabuz:
"Zelan? Ze lan? Ea non egiten dudan
lan jakin nahiko du". Nire erantzun-
a, gaztelaniaz, noski: "Ez dut lanik
egiten, ikasten ari naiz". Ez zidan ezer
gehiago galdetu...

Lau hilabete barnetegian igaro

ondoren euskara maila asko hobetu
nuen, baina herrira bueltatzean zaila
egiten zitzaidan hizkuntza ohiturak
aldatzea, niri eta gainerakoei. Ikasi-
takoa ez nuen praktikan jartzen, eta
berrito lotsatzen nintzen, oso poliki
eta trakets hitz egiten nuelako.

Irakasle zen lagun bat nuen Iruñean.
Berak bere ikasleekin euskaraz hitz
egiten zuen eta ohituta zegoen eran-
tzunak gaztelaniaz jasotzen. Nirekin
ere hala egiten zuen, berak euskaraz,
nik, berriz, gaztelaniaz.

Konturaterako hasi nintzen euska-
raz egiten, trakets, baina era natural
batean. Hizkuntza ohiturak aldatzen
hasi nintzen. Euskaltegian ikasten
jarrailu nuen hainbat urtetan, euskara
nire bizitzan gero eta leku gehiago
hartzen hasi zen, eta hizkuntzare-
kin batera, euskal kultura ere bai.
Goiz batean euskaraz amestu nuela
konturatu nintzenean bukatu ziren
buruko minak. Koloretako leiho berri
bat ireki zitzaidan! Eta umetan mania
hartu nion hizkuntza horrek heldutan
maitemindu egin nau.

Gaur egun euskara nire lanbidea ere
bada, eta izugarri pozten nau euska-
rak emandako koloreak eta baloreak
Euskal Herriko haur eta familiekin
partekatzeak.

Katxiporreta MaRiNotas



disko-liburua



disko-ondarra



FAMILIA MUNDUAREAN BIZI DUTEA: ikertu eta ikusien



DVD liburua



disko-liburua



disko-ondarra



Familian
barku jolasa



www.katxiporreta.eus



Katxiporreta

Oraindik...
Bilakaia 10
Bilakaia 10
Bilakaia 10



hh
hik hasi

**JOAQUIM RUYRA eta SANSOMENDI eskolen
hezkuntza-proiektuak ezagutzeko jardunaldia**
Azaroaren 24an DONDOSTIako EHUan, goizez

Katalanizazio ingurumenetik jatorri eta garapenaren alorrean lortzen den joanaren Ruyra eskola publikoa, **kasuak 5-10k jatorri araberakoa** du eta **kasuak 5-10k ez duela** ikasleentzako beste bertan egiten. Kurrikulatu gurteen karrera, tarteko ikasleek bagez erabazten dituzten **erabakiak** **Katalanizazio bidez** **bestelakoren erabazpenak** direla. Eta hori "irabazteak" jatorri diren ikasleak ezkerrean erabazten dituzten erabakiak dira.

- Zer da joan erabazteko horien atzean?
- Zein dira erabazteko gaitzak?

Castellón de la Plana eskolaren ikasleekin eta irakasleekin batera. Azkenik, **Castellón de la Plana** eta gaur egun **Katalanizazioaren** eredu berririk ez dagoela erabazteko dira.

Informazioa eta matrakula www.hikhasi.eus helbidean